

# Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak



euskara biziberritzeko plan naqusia  
plan general de promoción del uso del euskera

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*

*2011-04-12*

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> .....	<b>3</b>
<b>Egoera soziodemografikoa</b> .....	<b>4</b>
<b>Hizkuntza-gaitasuna</b> .....	<b>10</b>
<b>EBPNren hedadura</b> .....	<b>14</b>
<b>1. Euskararen transmisioa</b> .....	<b>16</b>
<b>1.1. Hezkuntza</b> .....	<b>17</b>
<b>1.2. Euskalduntze-alfabetatzea</b> .....	<b>26</b>
<b>1.3. Familia bidezko transmisioa</b> .....	<b>33</b>
<b>2. Euskararen erabilera</b> .....	<b>40</b>
<b>2.1. Erabilera datu orokorrak</b> .....	<b>41</b>
<b>2.2. Erabilera Administrazioan</b> .....	<b>48</b>
<b>2.2.1. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta udalak</b> .....	<b>49</b>
<b>2.2.2. Osasun zerbitzuak</b> .....	<b>55</b>
<b>2.2.3. Herrizaingo zerbitzuak</b> .....	<b>58</b>
<b>2.2.4. Justizia Administrazioa</b> .....	<b>61</b>
<b>2.3. Erabilera IKTn</b> .....	<b>64</b>
<b>2.4. Erabilera enpresetan</b> .....	<b>67</b>
<b>2.5. Erabilera aisialdian</b> .....	<b>70</b>
<b>3. Euskararen elikadura</b> .....	<b>74</b>
<b>3.1. Corpus-plangintza</b> .....	<b>75</b>

---

<b>3.2. Prentsa idatzia .....</b>	<b>78</b>
<b>3.3. Liburugintza .....</b>	<b>83</b>
<b>3,4. Irratia eta telebista .....</b>	<b>92</b>
<b>3.5. Kulturgintza .....</b>	<b>97</b>
<b>Hizkuntza-politikarako erabilitako diru-baliabideak .....</b>	<b>102</b>

# Aurkezpena

## HELBURU NAGUSIA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren<sup>1</sup> (EBPN) helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.  
(EBPN, 49)

## HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Euskararen transmisioa
2. Euskararen erabilera
3. Euskararen elikadura


<sup>1</sup> 1998ko uztailaren 28an, Gobernu Kontseiluak onartu eta bere egin zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Euskararen Aholku Batzordeak urte bereko ekainaren 24an burutu eta onarturiko plana.

## Egoera soziodemografikoa


### ADIERAZLEAK

- EAEko biztanleriaren piramidea
- EAEko atzerritarren piramidea
- Atzerritarren bilakaera
- Atzerritarren bilakaera, adinaren arabera
- Biztanle atzerritaren egituraren bilakaera, jatorriaren arabera
- 10 urte edo gehiagoko biztanle ez-ikasleak, egindako ikasketen arabera. EAE, 1991-2006
- 16 urte edo gehiagoko biztanleak jardueraren arabera. EAE, 1998- 2010

EAEko biztanleriaren piramidea (2009)



EAEko atzerritarren piramidea (2009)



Iturria: INE

Biztanleriaren eta atzerritarren piramideak (2009)


INEren (Instituto Nacional de Estadística) arabera, 2009an EAEko biztanleria 2.172.175 pertsonakoa zen eta zahartze-prozesua oso nabarmena da. Dena den, 65 urtetik gorako biztanleriaren hazkunde-erritmoa jaitsi egin da, eta 5 urte baino gutxiagoko haurren populazioa, aldiz, hazi. Horrek esan nahi du biztanleriaren zahartze-prozesu hori, neurri batean, moteldu egin dela.

Populazioa adin-taldeen arabera sailkatzean, gehiengoa 30-54 urte arteko adin-taldean dagoen arren, aipagarria da azken urte hauetan, 75 urtetik gorako taldeak nabarmen egin duela gora, bereziki emakumeenak. Gazteen adin-taldeak, 5 urte baino gutxiagokoak, ere nabarmen egin du gora.


Dena dela, kontuan hartu behar da 20 urtetik beherakoak biztanleria osoaren %16,7 direla; 60 urtetik gorakoak, aldiz, %24 dira.

Atzerriko populazioaren piramidea sexuaren eta adinaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu sexuari dagokionez, ez dagoela alde handirik, baina bai adinari dagokionez. Aipagarria da oso populazioa gaztea dela, ia erdia (%45) 25 eta 40 urte bitartekoa da 2009an. Ehuneko hori 75era iristen da (lautik hiru) 25 urtetik beherakoak ere kontuan hartzen baditugu.

Atzerritarren bilakaera. EAE, 1996-2009



Atzerritarren bilakaera adinaren arabera (%). EAE, 1996-2009



Iturria: INE


Atzerritarren bilakaera (1996-2009)

EAEn atzerriko immigrazioaren bilakaeraren ezaugarri nagusia hazkuntza ikusgarria da. Izan ere, INEk emandako datuen arabera, 1996tik 2006ra, 13.000 pasatxo izatetik (13.220) 85.000tik gora izatera (85.542) iritsi ziren. Are gehiago, 2009an 100.000 atzerritar baino gehiago zeuden EAEn erroldatuta (132.865). Horrek esan nahi du gaur egun atzerriko biztanleria hamar bider baino gehiago hazi dela. Hala ere, atzerriko populazioaren garrantzia erlatiboa ez da oso handia, biztanleria osoaren % 6,1 osatzen baitu.

Nafarroarekin alderatuz ehuneko apala da, erkidego honetan atzerriko biztanleriaren ehunekoa % 11,2 baita; Espainiako Estatuaren batez bestekoaren antzekoa (% 12,1), hain zuzen ere.

Atzerriko populazioaren ehunekoa ez da oso altua (% 6,1) oraindik, EAEko biztanleria osoa kontuan hartuz. Hala ere, adin-talde jakin batzuetan, bereziki 20 eta 40 urte bitartekoetan atzerriko populazioak pisu handia du. Balio maximoak 20-35 adin-taldean daude eta % 10-%15ekoak dira. 60 urtetik gorako adin-taldeetan, berriz, atzerriko populazioaren pisua oso txikia da, eta oso gutxitan gainditzen du % 1a.

Biztanle atzerritaren egitura, jatorriaren arabera. EAE, 1996-2009 (%)



Iturria: INE

Biztanle atzerritaren egitura, jatorriaren arabera. EAE, 1996-2009 (%)

Atzerriko populazioa nazionalitatearen arabera aztertzen badugu, 1996 eta 2009 artean aldaketa handia gertatu dela ikusiko dugu. Hasieran atzerriko populazioaren gehiengoa europarrek osatzen zuten (% 51,4). Gehienak (%93,3) Europar Batasuneko estatu hidaeetakoak (EU 15) ziren, eta haietatik ia erdiak portugaldarrak (%44).


Gaur egun (2009), ordea, banaketa hori erabat aldatu da. Europako atzerritarrek pisua galdu dute eta latinoamerikarrak igo dira lehen postura, atzerriko biztanleria osoaren ia erdia baitira (%48). Are gehiago, 1996an baino 20 bider gehiago dira.

Europako atzerritarrek pisu handia galdu dute, hala ere ekialdeko europarrek izan dute hazkuntza handia, bereziki errumaniarren kasuan. Izan ere, gaur egun europarren ia %40 (%37,4) errumaniarrak dira eta %1,2 ziren, ordea, 1996an.

Afrikako atzerritarrei dagokienez, hirugarren postuari eutsi diote eta ehunekoa ez da ia handitu aldi horretan, hau da, %17 zen 1996an eta %19 da, ordea, 2009an.



10 urte edo gehiagoko biztanle ez-ikasleak, egindako ikasketen arabera. EAE, 1991-2006




Iturria: EUSTAT

### 10 urte edo gehiagoko biztanle ez-ikasleak, egindako ikasketen arabera. EAE, 1991-2006

2006ko datuen arabera, EAeko bost biztanletik batek (%20,6) unibertsitate-mailako ikasketak eginak ditu. Bigarren mailako ikerketak edo lanbide-heziketakoak biztanleen herenak (%33,1) egin ditu eta lehen mailakoak %41,8k. Alfabetatu gabeak edo ikasketarik ez dutenak biztanleen %4,5 dira.

1991 eta 2006 bitartean unibertsitate-mailako ikasketak egin dituztenen ehunekoa bikoiztu egin da eta bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketakoak egin dituztenena hamar puntu egin du gora. Aldi berean, alfabetatu gabeak eta ikasketarik ez dutenak gero eta gutxiago dira (proportzioa hiru aldiz txikiagoa da).

16 urte edo gehiagoko biztanleak jardueraren arabera. EAE,1998-2010



Iturria: EUSTAT

16 urte edo gehiagoko biztanleak jardueraren arabera. EAE,1998-2010

2010eko datuen arabera,EAEko hiru biztanletik bik (%66,9) zerbitzuen sektorean egiten dute lan. Industrian dihardutenak biztanleen ia laurdena dira (%23,5) eta eraikuntzan %8,3. Lehen sektoreak, azkenik, oso pisu txikia du (%0,9).

Azken urteotan aldaketa txikiak izan badira ere, joerak nahiko garbiak dira. Zerbitzuen sektorea gero eta pisu handiagoa hartzen ari da, lehen sektorean eta industrian gero eta jende gutxiago ari da eta eraikuntzan ez da ia aldaketarik antzeman.


# Hizkuntza-gaitasuna

Euskara biziberritzeko hizkuntza-politikako neurriek ondorio onuragarriak izan dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan. (EBPN, 23)

## ADIERAZLEAK

- Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera EAEn
- Hizkuntza-gaitasuna lurraldeka
- Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 1996-2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 1996-2006 (%)

2006an bost urte edo gehiagoko 2.016.257 biztanle ditu Euskal Autonomia Erkidegoak. Horietatik, 755.640 pertsona (%37,5) elebidunak dira, beste 349.691 pertsona (%17,3) elebidun hartzaileak eta azkenik, 910.926 pertsona (%45,2) erdaldun elebakarrak.

Atzera begiratuz gero, ikusten da elebidunen ehunekoak nabarmen egin duela gora azken hamar urteotan: %30,9 ziren 1996an; %37,5, ordea, 2006an. Hortaz, duela 10 urte baino 130.000 pertsona gehiago dira gai euskaraz egiteko.

Elebidun hartzaileek gorakada apala izan dute: %16 ziren 1996an eta %17,3, ordea, 2006an. Azken bost urteetako datuen arabera, gainera, beherantz egiten hasi dira, nahiz eta oso beherakada txikia izan. Jaitsiera hori adinarekin dago lotuta, gazteenen artean gertatu baita.

Erdaldun elebakarrek, aldiz, behera egin dute nabarmen. Ia zortzi puntuko beherakada izan dute. Duela hamar urte baino ia 160.000 erdaldun elebakar gutxiago daude.

## Hizkuntza-gaitasuna lurraldeka. EAE, 2006 (%)


Lurraldeen datuak aztertuz, azpimarratzekoa da gaur egun gipuzkoarren erdia baino gehiago elebidunak direla (345.164 pertsona). Bizkaian, ordea, ia hirutik bat dira elebidunak (338.228 pertsona). Azkenik, Araba da elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena duena. Lautik bat dira elebidunak (72.248 pertsona).

Lurralde guztietan egin du gora elebidunen ehunekoak. Gorakadarik handiena Araban izan du. 1996an arabarren %14,5 baino ez ziren elebidunak (39.272 pertsona).

Bizkaian ere elebidunek gorakada handia izan dute. Bizkaian 7,4 puntutan egin du gora elebidunen ehunekoak hamar urtetan (1996ko %23,7 versus 2006ko %31,1).


Gipuzkoa da ehunekoetan bilakaera txikiena izan duen lurraldea (%49,8 versus %53,3). Kontuan hartu behar da, hala ere, elebidunen ehunekorik handiena zuela duela hamar urte eta gainera alde handiz.

## Hizkuntza-gaitasuna lurraldeka. EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Adina	Elebidunak	Eleb. hartzaiak	Erdaldunak	Guztira
≥65	97.387	26.570	255.328	379.285
60-64	26.176	11.549	79.944	117.669
55-59	31.800	16.055	90.310	138.165
50-54	34.639	19.826	88.609	143.074
45-49	45.550	27.582	90.698	163.830
40-44	52.791	34.456	85.395	172.642
35-39	56.673	43.907	72.690	173.270
30-34	69.569	54.848	56.951	181.368
25-29	83.479	43.564	41.422	168.465
20-24	73.419	27.454	22.176	123.049
15-19	62.181	17.487	11.963	91.631
10-14	61.592	11.882	6.878	80.352
5-9	60.384	14.511	8.562	83.457

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

30 urtetik beherako biztanleen erdia baino gehiago dagoeneko elebidunak dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horren ondorioz, adin horretako elebidun hartzaielen eta erdaldun elebakarren ehunekoa gutxituz doa urtetik urtera. Are gehiago, 15 urte edo gutxiagoko gazteen %70etik gora elebidunak dira azken datuen arabera.

30-50 urte bitartekoan artean pisu handiena erdaldun elebakarrek izan arren, elebidunek zein elebidun hartzaiak ere pisu handia dute. Joera orokorrari jarraituz, adinean gora egin ahala, elebidunen eta elebidun hartzaielen ehunekoa murriztuz eta erdaldun elebakarren ehunekoa, aldiz, handituz doa.

Bestalde, 50 urtetik gorakoan artean, adin-multzo guztietan %60 baino gehiago dira erdaldun elebakarrak eta elebidun hartzaiak ez dira %14ra ere iristen.

## EBPNren hedadura

EBPNren hedadura EAEko udaletan (2011)

Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak 1998ko ekainaren 24an EBPNren testua onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeari aurkezteko. Gobernu Batzordeak berriz urte horretan bertan, uztailaren 28an, EBPN onartu eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea erabaki zuen. Azkenik, 1999ko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen.


EBPNk udaletan izan du garapena. 2011ko urtean, 198 udalerrri (EAEko udalerrien %78,9) daude EBPNren eraginpean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan.

Udalerrri horietako gehienetan, udalak berak onartu du EBPN. Hainbat mankomunitate eta Arabako koadrila batzuen kasuan, ordea, erakunde horiek dira EBPN onartu dutenak eta ez euren barruan dauden udalak.

Edonola ere, egora batean zein bestean dauden udalerrriak EBPNren eraginpean daudela ulertzen da.

EBPNren eraginpean 1.812.476 pertsona daude, hau da EAEko biztanleen %89,1.

EBPNren hedadura EAEko udaletan (2011)



Iturria: HPS, 2011



# 1. Euskararen transmisioa

Euskararen geroratzea edo ondorengoetaratzea eskolaren, helduen euskalduntze-alfabetatzearen eta familiaren bidez lortzen da.  
(EBPN, 51)

## EREMUAK

- 1.1. Hezkuntza
- 1.2. Euskalduntze-alfabetatzea
- 1.3. Familia bidezko transmisioa


## 1.1. Hezkuntza

Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean. (EBPN, 51)

### ADIERAZLEAK

- EAEko ereduaren bilakaera
- Hezkuntza sistemako irakasle elebidunen bilakaera
- Ereduen bilakaera haur eta lehen hezkuntzan
- Ereduen bilakaera DBHn
- Ereduen bilakaera batxilergoan
- Ereduen bilakaera lanbide-heziketan
- Unibertsitatera sartzeko azterketa gainditu duten ikasleak, azterketan erabilitako hizkuntzaren arabera
- EHU lehenengoz matrikulatzean euskara hautatu duten ikasleen bilakaera
- EHU lehenengoz matrikulatzean euskara hautatu duten ikasleen bilakaera eremuen arabera
- Irakasle elebidunen bilakaera
- Ikasleen doktorego tesien bilakaera hizkuntzaren arabera
- Euskaraz eskainitako kredituak, zikloen arabera

Ereduen bilakaera. EAE, 1997/98–2010/11



Ereduen bilakaera. EAE, 1997/98–2010/11 (%)

Ikasturteak	D eredia	B eredia	A+X ereduak	Guztira
1997-98	36,0	18,8	45,2	341.490
1998-99	38,1	20,2	41,7	327.150
1999-00	40,6	21,0	38,4	317.152
2000-01	43,0	22,0	35,1	308.969
2001-02	45,0	22,1	32,9	302.663
2002-03	46,5	22,4	31,1	300.525
2003-04	48,4	22,5	29,1	301.497
2004-05	50,4	22,9	26,7	305.708
2005-06	52,5	23,0	24,5	310.309
2006-07	54,4	23,0	22,6	314.573
2007-08	56,0	23,2	20,9	319.842
2008-09	57,1	22,9	19,9	328.183
2009-10	58,8	22,8	18,4	333.288
2010-11	60,0	22,0	17,9	341.723

Iturria: EUSTAT eta Hezkuntza Saila

## Ereduen bilakaera. EAE, 1997/98–2010/11

**A eredia:** Irakasgai guztiak gaztelaniaz irakasten dira, euskara bera izan ezik. Euskara ikasgai modura ematen da.

**B eredia:** Bai euskara eta bai gaztelania erabiltzen dira eskolako irakasgaiak lantzeko. Euskara eta gaztelania irakasgai modura lantzen dira.

**D eredia:** Irakasgai guztiak euskaraz irakasten dira, gaztelania izan ezik. Gaztelania irakasgai modura ematen da.

2009/10 ikasturtean 341.723 ikasle matrikulatu ziren EAEn, Unibertsitate aurreko hezkuntzan. A eredian matrikulazioa %18koa izan zen, 61.510 ikaslerekin. B eredian matrikulazioa %22koa izan zen, 75.180 ikaslerekin. D eredian matrikulazioa %60koa izan zen, 205.134 ikasle hain zuzen.

Bilakaerari dagokionez, 997/8 ikasturteetik 2010/11ra bitartean ereduen bilakaerari erreparatuta, D ereduaren hazkunde etengabea nabari da. 1997/98 ikasturtean matrikulen %37 bildu zituen, eta urtez urte apur bat gora eginez, 09/10ean matrikulen %60 bildu ditu.


1997/8 ikasturtean A (+X) ereduak biltzen zituen matrikulen erdiak (%45 inguru). D eredian matrikulatutakoak ia %40 ziren, eta B eredian matrikulatutakoak %20. A ereduak matrikulak galdu ditu urtero, eta ikasturte honetan %20aren azpitik geratu da eredu horretako matrikulazioa. B ereduak 2007/8 ikasturtean jo zuen goia, baina orduan ere matrikulazioak ez zuen %25a gainditu, eta azken ikasturteotan behera dator atzera ere, matrikulen %22 bilduta.

Hezkuntza ez unibertsitarioko irakasle elebidunen bilakaera. EAE, 1976/77-2006/07 (%)

2006/7 ikasturtean Unibertsitate aurreko hezkuntzako irakasleen %90 elebidunak ziren.


1976/77 ikasturtean aldiz, euskarazko irakaskuntza Hezkuntza sisteman sartu aurrean, %5 besterik ez ziren irakasle elebidunak. Ordutik, hazkundera etengabea eta azkarra izan da, egun irakasle elebidunak %90etik gora izanik.

Hezkuntza ez unibertsitarioko irakasle elebidunen bilakaera. EAE, 1976/77-2006/07 (%)




Iturria: EUSTAT eta Hezkuntza Saila

Ereduen bilakaera haur eta lehen hezkuntzan. EAE, 1997-98/2010-11 (%)



Ereduen bilakaera DBHn. EAE, 1997-98/2010-11 (%)



Iturria: EUSTAT eta Hezkuntza Saila

Ereduen bilakaera: Haur eta lehen hezkuntzan eta DBHn. EAE, 1997-98/2010-11 (%)

Haur eta lehen hezkuntza : 2010/11 ikasturtean D ereduak ikasleen %65 baino gehiago matrikulatu dira, B ereduak, ikasleen %25 inguru eta A ereduak ikasleen %10 baino gutxiago.

Bilakaerari dagokionez, 1997/98 ikasturtean A(+X) ereduak matrikula guztien ia %30 biltzen zituen. Ikasturte hartan, D ereduak %45 inguru matrikulatu ziren, eta B ereduak matrikulatutakoak ia %30 izan ziren.

Ordutik, A ereduak matrikulak galdu ditu urtero; aldiz, B ereduak ez da gorabehera handirik izan, beheranzko joera agertzen duen arren. D ereduak matrikulazioak etengabe egin du gora: 1997/98 ikasturtean matrikulazioa %45 ingurukoa izan zen, eta urtez urte gora egin du.


DBH: 2010/11 ikasturtean D ereduak, ikasleen %55 baino gehiago matrikulatu dira, B ereduak ikasleen ia %30 eta A ereduak ikasleen %20 baino gutxiago.

Bilakaerari dagokionez, D ereduak matrikulazioak etengabe egin du gora. 1997/98 ikasturtean matrikulazioa %35 ingurukoa izan bazen, arian-arian gora eginez, %55 ingurukoa izan da 2009/10 ikasturtean.


1997/98 ikasturterako A(+X) ereduak biltzen zituen matrikulak %40 pasatxo ziren. A ereduak matrikulak galdu ditu urtez urte, eta 2009/10 ikasturtean ez da %20ra heldu eredu horretako matrikulazioa.

1997/98an, B ereduak matrikulatutakoak %20 pasa izan ziren. B ereduak oso poliki, baina zertxobait gora egin du, eta matrikulazioen ia %30era heldu da.

Ereduen bilakaera batxilergoan. EAE, 1997-98/2010-11 (%)



Ereduen bilakaera lanbide-heziketan. EAE, 1997-98/2010-11 (%)



Iturria: EUSTAT eta Hezkuntza Saila

Ereduen bilakaera: Batxilergoan eta Lanbide-heziketan. EAE, 1997-98/2010-11 (%)

**Batxilergoa:** 2010/11 ikasturtean, D ereduak ia %55ekoa izan da matrikulazioa, B ereduak ikasleen %5 baino gutxiago matrikulatu dira eta A ereduak ikasleen %45 baino gehiago.

Bilakaerari dagokionez, 1997/98 ikasturterako A(+X) ereduak bildutako matrikulazioak %65 pasatxo izan ziren. 2010ean ostera, matrikulazioak %50 baino gutxiago izan dira. Ikasturte hartan, D ereduak matrikulatutakoak %30 pasa ziren. Orduetik, matrikulazioak etengabe egin du gora, A ereduak behera egin duen neurri berean. 97/98 ikasturtean matrikulazioa %35 ingurukoa zen, eta arian-arian gora eginez, %55 ingurukoa izan da 2010/11 ikasturtean. B ereduaren matrikulazio tasa %5 baino gutxiago zen orduan eta antzekoa da egun ere.


**Lanbide Heziketa:** 2010ean A ereduaren matrikulazio tasak %70 gainditu du, D ereduarena aldiz, ia %25ekoa izan da eta B ereduaren matrikulazio tasa %3 ingurukoa da.

Bilakaerari dagokionez, 1997/98 ikasturtean A(+X) ereduak biltzen zuen matrikulazio tasa %90ekoa zen. Behera doa A eredu oso astiro bada ere.


Ikasturte hartan, D ereduaren matrikulatutakoak %10 ere ez ziren. Orduetik gora dator, eta 2010ean matrikulazioa ia %25ekoa izan da.

LHn B ereduaren matrikulazio tasa oso txikia da, %3koa, ia gorabeherarik gabe.

Unibertsitatera sartzeko azterketa gainditu duten ikasleak, azterketan erabilitako hizkuntzaren arabera. EAE, 1995-2009 (%)



EHU lehenengoz matrikulatzean euskara hautatu duten ikasleen bilakaera, 1997/98-2008/09 (%)



Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Unibertsitatera sartzeko azterketa gainditu duten ikasleak, azterketan erabilitako hizkuntzaren arabera. EAE, 1995-2009 (%)

2010ean ia %60 izan dira selektibitate azterketa euskaraz egin dutenak, eta %40 pasatxo gaztelaniaz egin dutenak.

Unibertsitatera sartzeko azterketa euskaraz egitea aukeratzen duten ikasleen ehunekoa gora dator, urtez urte.

1995ean %25 inguru izan ziren azterketa euskaraz egin zuten ikasleak, eta dagoeneko %60 dira.



EHU lehenengoz matrikulatzean euskara hautatu duten ikasleen bilakaera, 1997/98-2008/09 (%)

EHUn lehenengoz matrikulatzen diren ikasleek ikasgai gehienetan euskaraz ala gaztelaniaz (eta zenbait gaitan ingelesez ere bai) matrikulatzeko aukera dute.

2009an %45 inguru izan dira euskarazko aukeraren alde egin dutenak.

Euskarazko aukeraren alde egiten dutenak gero eta gehiago dira. 1995/6 ikasturtean %20 pasa izan ziren euskaraz ikastearen aldeko aukera egin zutenak, eta astiro baina etengabe gora egin du joera horrek, eta egun %45 inguru dira.

EHU lehenengoz matrikulatzean euskara hautatu duten ikasleen bilakaera eremuen arabera, 1997/98-2008/09 (%)



Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

EHU lehenengoz matrikulatzean euskara hautatu duten ikasleen bilakaera eremuen arabera, 1997/98-2008/09 (%)

2009/10ean %45 inguru izan dira Zientzia esperimentaletan lehenengoz izena ematean euskarazko aukeraren alde egin dutenak (%27 izan ziren 1997/98 ikasturtean). Osasun Zientzietan %35 inguru (%20 izan ziren 1997/98 ikasturtean) eta Ikasketa teknikoetan %30 (%15 pasa izan ziren 1997/98 ikasturtean).

Hiru ikas-eremuetan euskarazko matrikulazioak goranzko joera izan du oro har, baina Osasun zientzietan 2005/6 ikasturtean jo zuen goia euskarazko matrikulazioak (%40 pasatxo) baina ordutik beheranzko joera ageri du, eta aurten %35 inguruko izan da euskarazko matrikulazioaren ehunekoa.


2009/10ean %45 inguru izan dira Giza Zientzietan lehenengoz izena ematean euskarazko aukeraren alde egin dutenak (ia %40 izan ziren 1997/98 ikasturtean). Gizarte Zientzietan eta Zientzia Juridikoetan %48 inguru (%23 pasa izan ziren 1997/98 ikasturtean).

Giza zientzietan aipatutako bi ikasturteen arteko bilakaera orokorrak goranzko joera oso txikia ageri du.

Gizarte zientzietan, aldiz, euskarazko matrikulazioak goranzko joera izan du orain arte, azken ikasturteotan joera hori apaldu egin bada ere.




Irakasle elebidunen bilakaera. EHU, 1988/89-2009/10 (%)



Irakasle elebidunen bilakaera. EHU, 1988/89-2009/10 (%)

2009/10 ikasturtean Unibertsitateko irakasleen %40 dira elebidunak.  
1988/89 ikasturtean, aldiz, %15 baino gutxiago ziren. Irakasle elebidunen ehunekoak goranzko joera ageri du, etenik barik, aipatu ikasturteon artean.

Ikasleen doktorego tesien bilakaera hizkuntzaren arabera. EHU, 1999/00-2008/09



Ikasleen doktorego tesien bilakaera hizkuntzaren arabera. EHU, 1999/00-2008/09

2009/10 ikasturtean 15 izan dira euskarazko tesiak.  
1999/00 ikasturtean, 12 izan ziren. Goranzko joerarik ez da sumatzen, beraz.  
Gaztelaniaz egindakoak 200 inguru izan ziren 1999/00 ikasturtean eta 280 inguru izan dira 2009/00ean.  
Ingelesez idatzitakoek ere goranzko joera ageri dute, eta 50 izan dira 2009/00 ikasturtean.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

**Euskaraz eskainitako kredituak, zikloen arabera. EHU, 2004/05-2009/10**

2004/5 ikasturtean 14.000 nahitaezko kreditu eskaini ziren 1. zikloan. Guztiak eskaini ziren gaztelaniaz, eta 10.000 pasa euskaraz ere bai.

Ikasturte berean, 2. zikloan 5.000 kreditu eskaini ziren gaztelaniaz eta 2.700 inguru euskaraz ere bai.


2009/10 ikasturtean, 14.000 nahitaezko kreditu eskaini dira gaztelaniaz, eta horietatik 11.700 inguru, euskaraz ere bai.

Ikasturte honetan, 2. zikloan 6.000 kreditu eskaini dira gaztelaniaz eta horietatik 3.400 inguru euskaraz ere bai.

Bilakaerari erreparatuta, 1. zikloan nahitaezko kredituen eskaintza euskaraz ere osatzeko joera agerikoa da.

2. zikloan, aldiz, euskaraz ere eskaintzen diren ziklo kopurua haziz doan arren, soilik gaztelaniaz eskaintzen diren kredituen kopurua ere hazi egin da.

Euskaraz eskainitako kredituak, zikloen arabera. EHU, 2004/05-2009/10



Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)


## 1.2. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze-alfabetatzea da ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena. (EBPN, 34)


### ADIERAZLEAK

- Euskara ikasleen bilakaera
- Ikasleen batez besteko adinaren bilakaera
- Euskara ikasleak sexuaren arabera
- Euskara ikasleak euskaltegi motaren arabera
- Euskara ikasleak ikasketa-mailaren arabera
- Euskara ikasleak lanbidearen arabera
- Ikastaro mota desberdinak
- Irakasleen batez besteko adinaren bilakaera
- Irakasleak sexuaren arabera
- Irakasleak ikasketa-mailaren arabera

Euskara ikasleen bilakaera, 1995/96-2008/09



Ikasleen batez besteko adinaren bilakaera, 1995/96-2008/09



Iturria: HABE

Euskara ikasleen bilakaera, 1995/96-2008/09

EAEko euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroetan ikasten duten ikasleen kopuruak gorabehera bat baino gehiago izan du azken urteetan. Horrela, HABEk euskaltegien datuak prozesatzen dituenetik (1985-86 ikasturtetik), 1995-96 ikasturtea izan da ikaslerik gehien ezagutu duena: 44.855 ikasle.

2008/09an 38.957 ikasle dira euskaltegietan dihardutenak.

1995/96 ikasturtean hasitako beheranzko joerak 2002/03 ikasturtea arte iraun du. Ikasturte horretatik aurrera, goranzko joera baldin badu ere, gorabeheratsu dabil ikasleen kopurua, 35.000 eta 39.000 artean.


Ikasleen batez besteko adinaren bilakaera, 1995/96-2008/09

2008/09 ikasturteko datuen arabera ikasleen batez besteko adina 34 urtekoa da. Nabarmen gazteagoak ziren 1995/96ko ikasleak, batez bestekoa 25 urtekoa baitzen.


21-25 urtez beherakoak gutxitu egin dira eta 36 urtetik gorakoak gehitu.

16-20 urte bitarteko ikasle-multzoari erreparatzen badiogu, 2003/04 ikasturtean aurkituko dugu kopururik txikiena eta hurrengo ikasturteetan, nabariegia ez baldin bada ere, goranzko joera dugu adin tarte horretan.

Euskara ikasleak sexuaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)



Euskara ikasleak euskaltegi motaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)



Iturria: HABE

Euskara ikasleak sexuaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)

Ikaslearen tipologia aztertzerakoan, sexuaren araberako banaketak azaltzen digu ikasle gehienak emakumeak direla. Hiru ikasletik bi emakumeak dira.

Emakumeen ehunekoak gorako joera erakusten du.

2008/09 ikasturtean emakumeen aldeko portzentajea ia %68koa da.


Euskara ikasleak euskaltegi motaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)

Euskaltegi tipologia: titularitatearen arabera publikoak edo pribatuak izan daitezke. Pribatuak, homologatuak edo libreak dira. Horiez gain, badira ere Autoikaskuntza-zentroak.


2008/09 ikasturtean hauxe dugu egoera: 39 udal euskaltegik (euskaltegi publikoak) eskaeraren %29a hartzen du bere gain. 60 euskaltegi homologatu eskaeraren %68az arduratzen da. Badira ere Autoikaskuntzako 8 zentro eskaeraren %5 eskuratzen dutenak.

Euskaltegien kopuruak aldaketak izan ditu historian zehar. Alde nabarmena eman da, batez ere 1995/96 ikasturtetik 2002/03ra bitartean, udal euskaltegiak izan gabe publikoak zirenak (HABEren euskaltegiak) desagertu egin baitira eta euskaltegi pribatu guztiak homologatu edo desagertu direlako.

Euskara ikasleak ikasketa-mailaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)



Euskara ikasleak lanbidearen arabera, 1990/91-2008/09 (%)



Iturria: HABE

Euskara ikasleak ikasketa-mailaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)

Gora egin du nabarmen goi-mailako ikasketak dituzten ikasleen ehunekoak.

Ikasleen ikasketei dagokienez, alde nabarmenak atzeman daitezke 2008/09 eta 1990/91 ikasturteak alderatuz gero.

Lizentziatuen eta Diplomatuaren ehunekoak gora egin du, %23,3koa 1990/91 ikasturtean %43,1ekoa 2008/09 ikasturtean.

Kontrako joera dugu UBI edo LHII eta Eskola graduatuak edo LHIIkoak %63,8 izatetik 1990/91 ikasturtean %44,2 izatera iritsi da 2008/09 ikasturtean.

Magisteritza dutenen ehunekoa %7,4tik %4,5era jaitsi da.

Euskara ikasleak lanbidearen arabera, 1990/91-2008/09 (%)

Lanbidearen arabera, ikasleak direnen kopuruak behera egin du eta funtzionarioenak gora.

Daturik esanguratsuena ikasleen jaitsiera da: %38,3tik 1990/91 ikasturtean %19,9ra 2008/09 ikasturtean.

Horrekin batera funtzionarioen igoera aipatu behar da, %12,3tik 1990/91 ikasturtean %18,5era 2008/09 ikasturtean.

Teknikariak ere gora egin dute nabarmen eta %3,1etik %9ra. Langileek gorako joera azaldu dute eta etxeko andreak beherakoa.

**Ikastaro mota eta ikas-prozesuak, 1990/91-2008/09 (%)**

Ikasleak 200 bat ordu behar izaten ditu urrats bat gainditzeko, eta betez bete 2.400 ikas-prozesua osatzeko<sup>2</sup>.

Euskalduntze-alfabetatzeak honako ikastaro-mota hauek eskaintzen ditu:

10 ordu baino gutxiago astean: 2008/09 ikasturtean ikasleen %33,5ek aukeratu du ikastaro-mota hau. Gero eta ikasle gehiago ari da ikastaro-mota honetan. Izan ere, 1990/91 ikasturtean hona bikoiztu egin da ikasle-kopurua.

10 ordu astean: 2008/09 ikasturtean ikasleen herenak baino zertxobait gehiagok (%35,8) aukeratu du. Azken urteotan behera egin du ikastaro-mota honetako ikasle-kopurua, 1990-91 ikasturtean %55,6 baitziren.


Ikastaro trinkoak: 2008/09 ikasturtean ikasleen %18,8k aukeratu du ikastaro trinkoren bat. Azken ikasturteotan ehunekoak nabarmen egin du behera.

Autoikaskuntza: euskara ikasteko aukera honen presentzia handituz doa urtez urte. 2008-09 ikasturtean ikasleen %12k aukeratu dute ikastaro mota hau.

Ikasleek gero eta modulu arinagoak aukeratzen dituzte, eta horren ondorioz luzatzen ari da ikas-prozesua.


<sup>2</sup> 2400 ordu behar dira HABEren 3.maila gainditzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C1 maila lortzeko.(Astean 10 ordu = 300 ordu ikasturtean, beraz, C1 maila lortzeko 8 ikasturte)

**Ikastaro mota eta ikas-prozesuak, 1990/91-2008/09 (%)**




Iturria: HABE

Irakasleak sexuaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)



Irakasleen batez besteko adinaren bilakaera, 1995/96-2008/09



Iturria: HABE

Irakasleak sexuaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)

Ikasleekin gertatu bezala, irakasleen artean ere sexuaren araberako banaketak azaltzen digu irakasle gehienak emakumeak direla. Era berean, 3 irakasletik 2 emakumeak dira. Hala ere, irakasleen arteko aldeak txikiagoak dira.

Hauek emakumeei dagozkien ehunekoak:

%66,4koa izan zen 1990/91 ikasturtean. 2002/03 eta 2008/09 ikasturteetan izan da orain arteko alderik handiena, %69,1ekoa.

Irakasleen batez besteko adinaren bilakaera, 1995/96-2008/09

Irakasleen batez besteko adina 38 urtekoa da 2008/09an.

Irakasleen batez besteko adinak 6 puntuko igoera izan du erkatzen ari garen bi ikasturteetan. 1995/96an 32 urtekoa izan zen batez besteko hori eta 38 urtekoa 2008/09an.

30 urtetik beherakoak erdia baino gehiago ziren (%54,5) 1995/96 ikasturtean eta %22,7, aldiz, 2008/09an.

2008/09 ikasturtean batez besteko ehunekorik altuena 41-45 tartean dago eta %23,9koa da.



### Irakasleak ikasketa-mailaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)

Gaur egungo irakasleak goi-mailako ikasketak ditu.


Irakasleen ikasketei dagokienez, alde nabarmenak atzeman daitezke 2008/09 eta 1990/91 ikasturteak alderatuz gero.

Lizentziatuen eta Diplomatuak kopuruak gora egin du. 2008/09 ikasturtean %70,1ekoa izan da, 1990/91 ikasturtean, aldiz, %45,5ekoa izan zen.

Kontrako joera dugu Magisteritzari dagokionez, %18,6koa izan da 2008/09 ikasturtean eta %34,4koa izan zen 1990/91 ikasturtean, ia bikoitza.

1996an abian jarri zen irakasleen homologazio-prozesuarekin batera, euskaltegien homologazioa ere gauzatu zen; horren ondorioz, "besterik" ataleko irakasleek titulua eskuratu zuten edo irakasle gaituen atalean jasota daude.

### Irakasleak ikasketa-mailaren arabera, 1990/91-2008/09 (%)



Iturria: HABE

## 1.3. Familia bidezko transmisioa

Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira.  
(EBPN, 52)

### ADIERAZLEAK

- Lehen hizkuntza lurraldeka
- Lehen hizkuntza adinaren arabera
- Hizkuntza-bilakaeraren indizea
- Elebidunen bilakaera
- Elebidunen bilakaera adinaren arabera


## Lehen hizkuntza lurraldeka. EAE, 2006 (%)

Lehen hizkuntza pertsonaren bizitza osorako ezaugarria da. Hortaz, denboran zehar egindako neurketetan oso gutxi aldatzen den aldagaia da.

EAEko biztanleen %19,3ren lehen hizkuntza euskara da, eta %4,2rena euskara eta erdara. Gainerako biztanleek, hau da, EAEko lau biztanletik hiruk (%76,5ek) erdara dute lehen hizkuntza.


Lurraldeen arabera aztertuz gero, ikus daiteke aldeak handiak direla. Horrela, %3,8 dira Araban lehen hizkuntza euskara dutenak, %13,0 Bizkaian eta %36,6 Gipuzkoan. Ehunekorik txikienak lehen hizkuntza euskara eta erdara, biak dituztenenak dira: %2,4 Araban, %3,6 Bizkaian eta %6,1 Gipuzkoan. Aldeak alde, lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoak nagusi dira hiru lurraldeetan: %93,8 Araban, %83,4 Bizkaian eta %57,3 Gipuzkoan.

## Lehen hizkuntza lurraldeka. EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Adina	Guztira	Euskara	Biak	Erdara
≥65	379.285	23,7	2,0	74,3
60-64	117.669	19,4	2,1	78,5
55-59	138.165	19,2	2,3	78,5
50-54	143.074	18,4	2,3	79,3
45-49	163.830	18,1	2,7	79,1
40-44	172.642	17,7	3,2	79,1
35-39	173.270	16,8	3,5	79,8
30-34	181.368	16,5	4,2	79,4
25-29	168.465	16,6	5,2	78,2
20-24	123.049	17,4	6,6	76,0
15-19	91.631	19,5	8,4	72,1
10-14	80.352	22,1	11,0	66,9
5-9	83.457	23,3	13,4	63,2

Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Gaztelania da lehen hizkuntza nagusia adin-talde guztietan. Egia da, hala ere, zenbat eta gazteago orduan eta txikiagoa dela nagusitasun hori. Izan ere, 25 urtetik gorakoen artean lau lagunetik hiruk baino gehiagok gaztelania dute lehen hizkuntza, baina 15 urtetik beherako gazteen artean ehunekoa hamar puntu txikiagoa da (%65,1) eta 10 urtetik beherakoen artean hamahiru puntu txikiagoa (%63,2).

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handienak zaharrenek eta gazteenek dituzte. 65 urtetik gorako %23,7ren eta 15 urtetik beherako %22,7ren lehen hizkuntza euskara da. Gainerako adin-taldeetan lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa %20tik behera dago.

## Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). EAE, 1996-2006

		1996		2006	
		Kop.	%	Kop.	%
Elebidunak	Euskaldun zaharrak	379.745	18,8	355.008	17,6
	Jatorrizko elebidunak	52.934	2,6	66.991	3,3
	Euskaldun berriak	189.139	9,4	333.641	16,5
Elebidun hartzaileak	Partzialki euskaldun berriak	287.413	14,3	311.167	15,4
	Partzialki erdaldunduak	35.313	1,8	38.524	1,9
Erdaldun elebakarrak	Gutziz erdaldunduak	13.705	0,7	13.109	0,7
	Erdaldun zaharrak	1.056.773	52,4	897.817	44,5
Guztira		2.015.022	100	2.016.257	100

Iturria: EUSTAT

## Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). Tipologia

Pertsonen hizkuntza-ibilbidea aztertzeko, euren lehen hizkuntza eta gaur egungo hizkuntza-gaitasuna aldagaiak gurutzatu behar dira. Horren emaitzari BILA (bilakaera) indizea deituko diogu.

Elebidunak hiru multzotan banatu ditugu, euren lehen hizkuntzaren arabera:

- euskaldun zaharrak: euskara jaso dute etxean.
- jatorrizko elebidunak: euskara eta erdara jaso dute etxean.
- euskaldun berriak: erdara jaso dute etxean eta euskara eskolan edo euskaltegian ikasi dute.


Elebidun hartzaileak bi multzotan:

- partzialki euskaldun berriak: erdara jaso dute etxean eta euskara ikasten ari dira edo aritu dira, baina oraindik ez dute ondo menderatzen.
- partzialki erdaldunduak: etxean euskara jaso dute, baina gaur egun ez dira ondo moldatzen euskaraz.

Erdaldun elebakarrak beste bi multzotan:

- guztiz erdaldunduak: etxean euskara jaso dute eta erabat galdu dute.
- erdaldun zaharrak: ez dute euskararik jaso etxean eta ez dute ikasi.

Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). EAE, 1996-2006 (%)



Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). EAE, 1996-2006 (%)

EAEko biztanleen %44,5 erdaldun zaharrak dira, hau da, etxean gaztelania jaso dute eta gaur egun erdaldun elebakarrak dira. Erdaldun elebakarrak dira, halaber, guztiz erdaldunduak (%0,7).

Beste muturrera joz, EAEko biztanleen %17,6 euskaldun zaharrak dira. Horiekin batera, bada multzo txiki bat (%3,3) etxean euskara eta erdara jaso dituen eta jatorrizko elebidunak deritze. Elebidunen hirugarren multzoa euskaldun berriek osatzen dute. EAEko biztanleen %16,5 dira.

Elebidun hartzaileek euskaraz ondo ulertu arren, hitz egiteko zailtasun handia dute. Multzo horretan partzialki erdaldunduak (%1,9) eta partzialki euskaldun berriak (%15,4) daude.

1996ko datuekin alderatuz, aipagarria da euskaldun berrien hazkundea (1996ko %9,4 versus 2006ko %16,5) eta erdaldun zaharren murrizketa (1996ko %52,4 versus 2006ko %44,5). Hortaz, euskaldun berriek 7 puntu egin dute gora eta erdaldun zaharrek, aldiz, 8 puntu egin dute behera.

Iturria: EUSTAT

## Elebidunen bilakaera. EAE, 1996-2006 (%)


2006an EAEko elebidunen %47 euskaldun zaharrak dira eta %8,9 jatorrizko elebidunak. Lehen hizkuntza gaztelania duten elebidunak, hau da, euskaldun berriak %44,2 dira. Beraz, gaur gaurkoz elebidun gehienen lehen hizkuntza euskara bada ere (soilik edo gaztelaniarekin batera), elebidunen kopuru handi baten bigarren hizkuntza da.

1996an, aldiz, EAEko elebidunen %30,4 ziren euskaldun berriak. Hortaz, euskaldun berriak gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira elebidunen artean.

Lurraldearen arabera aztertuz, ikusten da euskaldun berrien ehunekoetan alde handiak daudela. Izan ere, Araban euskaldun berriak elebidunen %79,2 dira, %54 Bizkaian eta %27 Gipuzkoan.


Era berean, euskaldun berrien erdia baino gehiago (%52,5) EAEko sei udalerritan bizi dira: Bilbon, Gasteizen, Donostian, Getxon, Irunen eta Barakaldon.

## Elebidunen bilakaera. EAE, 1996-2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Elebidunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Elebidunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Adina	Guztira	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Elebidunak (Guztira)
≥65	379.285	21,8	1,3	2,6	97.387
60-64	117.669	17,7	1,3	3,2	26.176
55-59	138.165	17,4	1,5	4,2	31.800
50-54	143.074	16,5	1,5	6,3	34.639
45-49	163.830	16,1	1,7	10,0	45.550
40-44	172.642	16,0	2,1	12,5	52.791
35-39	173.270	15,5	2,6	14,6	56.673
30-34	181.368	15,5	3,5	19,3	69.569
25-29	168.465	15,5	4,6	29,4	83.479
20-24	123.049	15,0	5,5	39,2	73.419
15-19	91.631	16,5	6,9	44,4	62.181
10-14	80.352	21,4	10,6	44,7	61.592
5-9	83.457	21,5	11,9	38,9	60.384

Elebidunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Elebidunak bakarrik kontuan hartuz gero, 30 urtetik beherako elebidunen artean euskaldun berrien nagusitasuna nabarmena da. Izan ere, elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira adin-talde guztietan (20 eta 24 urtekoen artean, esaterako, elebidunen %65,7).

Euskaldun zaharren ehunekorik handienak 65 urtetik gorakoek eta 15 urtetik beherakoek artean daude (%21,8 eta %21,4 hurrenez hurren). Gainerako adin-taldeetan euskaldun zaharren ehunekoa oso antzekoa da (%15 eta %17,7 artekoa).

Jatorrizko elebidunak oso gutxi dira zaharren eta helduen artean. Adinak behera egin ahala, hala ere, hazi egin da jatorrizko elebidunen ehunekoa. Hazkunde hori bereziki handia da 15 urtetik beherako gazteen artean.



## 2. Euskararen erabilera

Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaldu behar da. (EBPN, 50)

### EREMUAK

- 2.1. Erabilera datu orokorrak
- 2.2. Erabilera Administrazioan
  - 2.2.1. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta udalak
  - 2.2.2. Osasun Zerbitzuak
  - 2.2.3. Herrizaingo Zerbitzuak
  - 2.2.4. Justizia Administrazioa
- 2.3. Erabilera IKTn
- 2.4. Erabilera enpresetan
- 2.5. Erabilera aisialdian


## 2.1. Erabilera datu orokorrak

Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik beste erabilera-eremuetara ere zabaldu behar da, heldu-aroko eremu berezi eta garrantzizkoetarako gaztelaniak besteko balioa duela erakusteko. Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza dira, hurrengo hamar urteotan, bai herri-aginteeek bai euskararen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuenak. (EBPN, 53)

### ADIERAZLEAK

- Euskararen erabilera EAEn
- Euskararen erabilera lurraldeka
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera adinaren arabera
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera eremuaren arabera
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera eremuaren arabera
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera etxean, adinaren arabera
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera lagunartean, adinaren arabera
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera udal zerbitzuetan, adinaren arabera
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera osasun zerbitzuetan, adinaren arabera
- Euskararen erabilera kalean

Euskararen erabilera. EAE, 2006 (%)




Euskararen erabilera. EAE, 2006 (%)

IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2006an EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %28,6k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean. %18,6k euskara erdara beste (%6,1) edo gehiago (%12,5) erabiltzen du eguneroko jardunean. Aldi berean, %11k euskara erabiltzen du, baina erdara baina gutxiago.


Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak %3,3 dira Araban, %12,5 Bizkaian eta %35,6 Gipuzkoan.

Iturria: HPS, IV. Inkesta Soziolinguistiko, 2006

Euskararen erabilera lurraldeka. EAE, 2006 (%)




Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Euska

ra erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Iturria: HPS, IV. Inkesta Soziolinguistikoa, 2006

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)

Azken 15 urteotako bilakaeran azpimarratzekoa da euskararen erabilera gora egin duela EAEn. 1991n %15,3 ziren euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen zutenak. 10 urte beranduago, 2001ean, %17,2 ziren; eta 2006an, %18,6.

Adinari dagokionez, aldaketa argia gertatu da. Duela 15 urte, zaharrak ziren gehien erabiltzen zutenak, eta adinak behera egin ahala txikiagoa zen euskara erabiltzen zutenen ehunekoa. Gaur egun, berriz, adinak behera egin ahala handiagoa da euskararen erabilera, 65 urtetik gorakoek erabilerak handia izaten jarraitzen duen arren.


Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)

Azken 15 urteotako bilakaeran gorabehera txikiak izan dira elebidunen erabilera dagokionez. 1991ko datuei begiratuz gero, euskara beti edo ia beti erabiltzen zuten elebidunen ehunekoa gaur egungo berbera zen, %41,6ko erabilera, alegia.


Adinari dagokionez, ordea, badira aldaketak. 16-24 urte tarteko gazte elebidunek, esaterako, 1991n baino gutxiago erabiltzen dute euskara 2006an. Hala ere, 50 urtetik gorako elebidunen artean euskararen erabilera handiagoa da duela 15 urte baino.

Elebidun gazteen artean, euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoiak, besteak beste, lehen hizkuntza erdara izatea, euskaraz jarduteko erraztasun urriagoa izatea eta gehienak gune erdaldunetan bizitzea dira.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera eremuaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera eremuaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera eremuaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)

Erabilerari buruz egiten diren azterketek behin eta berriro erakusten dute erabileran eragiten duten faktore nagusiak hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, eta hiztunak hizkuntza batean eta bestean jarduteko duen erraztasuna direla. Bi faktore horiek erabateko garrantzia dute erabileraren eremu desberdinetan.

Horrela, EAEn euskararen erabilerak eremu formalean izan du igoyerarik handiena, hau da, udal-zerbitzuetan, osasun-zerbitzuetan, banku edo kutxetan eta dendetan. Eremu informaletan hazkunde txikiagoa izan du, besteak beste, etxeokoen artean, lagunen artean edo auzokoen artean.


Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera eremuaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)

Euskararen erabileran dagoen hazkundeak elebidunen hazkundean du oinarri eta arrazoi. Elebidunak, hau da, euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutenak gero eta gehiago dira eta, horren ondorioz, euskara erabiltzen duten pertsonen kopurua ere hazi egin da. Kontua da bata eta bestea, normala denez, ez direla neurri berean hazi.


EAEko elebidunek eremu informaletan, etxean eta lagunekin, alegia, duela 15 urte baino gutxiago erabiltzen dute euskara. Hala ere, eremu formalean, osasun-zerbitzuetan batik bat, iguera handia izan du erabilerak.

Iturria: HPS, IV. Inkesta Soziolinguistikoa, 2006

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera etxean, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera lagunartean, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Iturria: HPS, IV. Inkesta Soziolinguistikoa, 2006

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera etxean, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)

Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, gaur egun duela 15 urte baino gutxiago erabiltzen da euskara etxean adin-talde guztietan.

Era berean, duela 15 urte bezala, zaharrak dira euskara etxean gehien erabiltzen dutenak, eta adinak behera egin ahala txikiagoa da euskara etxean erabiltzen dutenen ehunekoa.


Horren arrazoia azaltzeko orduan, gogoan izan behar da, esate baterako, 25 urtetik beherako elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berriak direla. Etxe gehienetan elebidun horiek ez dute aukerarik gurasoekin edo familiako gainerako kideekin euskaraz jarduteko.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera lagunartean, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)


Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera lagun artean aztertuz gero, ikus daiteke oso gutxi aldatu dela lagun arteko erabileraren ehunekoa orokorrean, hau da, adina kontuan hartu gabe.

Adina kontuan hartuz gero, ordea, aldaketa gertatu da. Izan ere, gaur egun duela hamabost urte baino elebidun gehiagok erabiltzen dute euskara lagun artean, 35 urtetik beherako artean. Adin horretatik aurrera, elebidunek lagun artean euskara gutxiago erabiltzen dute duela hamabost urte baino.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera udal zerbitzuetan, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera osasun zerbitzuetan, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Iturria: HPS, IV. Inkesta Soziolinguistikoa, 2006

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera udal zerbitzuetan, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)

Gaur egun elebidunek euskara gehiago erabiltzen dute udal zerbitzuetan orain dela hamabost urte baino ia adin-talde guztietan. 16-24 urte bitartekoek gutxixeago erabiltzen dute, baina aldea oso txikia da.

Era berean, azpimarratzekoa da eremu formal guztietatik euskara gehien erabiltzen den eremua dela.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera osasun zerbitzuetan, adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)

Osasun-zerbitzuetan 1991etik 2006ra euskararen erabilerak hazkunde handia izan du adin-talde guztietan.

Hazkunderik handiena 65 urtetik gorako elebidunen artean izan du, 30 puntutik gorako hazkundera izan baitu. Dena dela, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoa ere nabarmen hazi da gainerako adin-talde guztietan. 15 urte horietan euskararen erabilerak hazkunderik handiena izan duen eremu formala da.

Euskararen erabilera kalean. EAE, 1997-2006 (%)

Soziolinguistika Klusterrak 1997-2006 aldian egindako kale neurketetako emaitzetan ikus daitekeenez, euskararen erabilerak kalean gora egin du oro har, nagusien artean izan ezik. Adinekoen erabilerak ia hiru puntuko beherakada izan du.


Kaleko euskararen erabilera haurren erabilerak izan du hazkunderik handiena, ia bost puntuko igoera izan baitu bederatzi urtetan (1997ko %21,1 versus 2006ko %25,7). Hortaz, 1997an ez bezala, 2006an adinean behera egin ahala erabilerak gora egiten du.

Euskararen erabilera kalean. EAE, 1997-2006 (%)

	1997	2006
Haurrak	21,1	25,7
Gazteak	14,0	16,1
Helduak	12,6	14,5
Adinekoak	15,1	12,2

Iturria: Soziolinguistika klusterra

Euskararen erabilera kalean. EAE, 1997-2006 (%)





## 2.2. Erabilera Administrazioan

Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. (EBPN, 54)

### EREMUAK

1. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta udalak
2. Osasun Zerbitzuak
3. Herrizaingo Zerbitzuak
4. Justizia Administrazioa

## 2.2.1. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta udalak

Herri-administrazioetan (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskaraz bitzua sendotu edo eratu eta hizkuntza-normalizatzailen prestakuntzaz arduratu. (EBPN, 54)

### ADIERAZLEAK


- Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-eskakizunen egoera 1995-2010 (derrigortasun data duten lanpostuen titularrak)
- Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-eskakizunen egoera 2010 (derrigortasun data duten lanpostuen azken okupantea)
- EBPN ekintzak egiteko diru-laguntzak eskatu dituzten toki-entitateak
- Foru-aldundietako hizkuntza-eskakizunen egoera 2010 (derrigortasun data duten lanpostuak)
- Udaletako hizkuntza-eskakizunen egoera, helburu mailakatuen arabera. EAE, 2010 (derrigortasun data duten lanpostuak)

Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-eskakizunen egoera 1995 – 2010  
(derrigotasun-data duten lanpostuen titularrak)

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak arautzen du. Dekretuaren eraginpean dauden erakundeak honakoak dira: Euskal Autonomia Elkartekeko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Lan Harremanen Kontseilua, foru- eta toki-administrazioak eta beren erakunde autonomoak, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak eta Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioa eta zerbitzuetan diharduten langileak.

2010ean, Eusko Jaurlaritzako 2.957 lanpostuk dute derrigortasun-data ezarrita, hau da, lanpostuen %44,3. Horietatik lanpostuen jabe (titularrak) diren langileen %46,3k egiaztatuta dute haien lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna. Ezer egiaztatu ez dutenak, aldiz, titularren %3,8 dira. Lanpostu baten jabe diren langileen %3,9k bere lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna baino 1, 2 edo 3 gutxiago egiaztatu du. Azkenik, titularren %4,9 salbuetsita dago.

Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-eskakizunen egoera 1995 – 2010  
(derrigotasun-data duten lanpostuen titularrak)




Iturria: Eusko Jaurlaritza

Aipagarria da Eusko Jaurlaritzan jaberik ez duen lanpostu-kopuru handia (%41,2). Hala ere, horrek ez du esan nahi lanpostu horiek hutsik daudenik. Izan ere, lanpostu horietako gehienak lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen langileak betetzen du.

Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-eskakizunen egoera, 2010  
(Derrigortasun-data duten lanpostuen azken okupantea)

Derrigortasun-data duten lanpostuen azken okupantea, hau da, data jakin batean lanpostua betetzen duen langilea (lanpostuaren titularra izan zein ez) kontuan hartuz gero, 2010ean Eusko Jaurlaritzako lanpostuen %77,4 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen langileak betetzen du. Inolako hizkuntza-eskakizunik egiaztatu ez duten okupanteak, aldiz, %8,3 dira. Okupanteen %7,1ek betetzen ari den lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna baino 1, 2 edo 3 gutxiago egiaztatu du. Azkenik, okupanteen %4,2 salbuetsita daude eta hutsik dauden lanpostuak %2,9 dira.

Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-eskakizunen egoera, 2010  
(Derrigortasun-data duten lanpostuen azken okupantea)



Iturria: Eusko Jaurlaritzak


EBPN ekintzak egiteko diru-laguntzak eskatu dituzten toki-entitateak. EAE, 2003-2010

2010ean, 130 toki-entitatek eskatu dute eta onartu zaie diru-laguntza EBPN garatzeko. Horietatik 120 udalak dira, 5 koadrilla, 2 patronatu eta 3 mankomunitate. EBPN diru-laguntza deialdira aurkeztutako udalen artean 17 UEMA barruan daude.

Urtez urte gora egin du EBPN garatzeko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza deialdira aurkeztu den toki-entitateen kopuruak. 2003an 13 toki-entitatek eskatu zuten dirulaguntza eta 2004an 45. 2009tik aurrera toki-entitate eskatzaileak 100etik gora dira.

Kontuan hartu behar da, gainera, ekintzak garatzeko diru-laguntzetara aurkezteko, 2007tik aurrera nahitaezkoa dela toki-entitateak erabilera-palan onartuta eta indarrean izatea. Hortaz, gaur egun ekintzak garatzeko diru-laguntzetara aurkeztutako toki-entitateek erabilera-plana indarrean dute.

EBPN ekintzak egiteko diru-laguntzak eskatu dituzten toki-entitateak. EAE, 2003-2010 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza


Foru-aldundietako hizkuntza eskakizunen egoera, 2010  
(Derrigortasun data duten lanpostuak)

EAEko hiru foru aldundietan, lanpostuen %58,5ek (4.808) derrigortasun-data dute. Horietatik lanpostuen jabe (titularrak) diren langileen %57,8k egiaztatuta dute haien lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna 2010ean. Ezer egiaztatu ez dutenak, aldiz, titularren %4,3 dira. Lanpostu baten jabe diren langileen %5,5ek bere lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna baino 1, 2 edo 3 gutxiago egiaztatu du. Azkenik, titularren %7,8 salbuetsita dago. Hiru foru-aldundietan derrigortasun-data duten lanpostuen %24,4k ez dute titularrik (lanpostu hutsak dira)


Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten titularrak %50 baino gehiago dira hiru foru-aldundietan, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak du betetze-mailarik handiena (%61,5) eta Arabakoak txikiena (%51,6). Bizkaiko Foru Aldundia ere batez bestekoaren azpitik dago (%56,9)

Foru-aldundietako hizkuntza eskakizunen egoera, 2010  
(Derrigortasun data duten lanpostuak)


Arabako Foru Aldundia  
Guztira: 574



Bizkaiko Foru Aldundia  
Guztira: 2.594



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Guztira: 1.640




Iturria: Eusko Jaurlaritzza

Udaletako hizkuntza eskakizunen egoera, helburu mailakatuen arabera. EAE, 2010 (Derrigortasun data duten lanpostuak)

EAEko udaletan 9.099 lanpostuak dute derrigortasun-data ezarrita, hau da, lanpostuen %52,6k. Horietatik lanpostuen jabe (titularrak) diren langileen %56,7k egiaztatuta dute haien lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna eta %5,6k ez dute ezer egiaztatu.

Udalak helburu mailakatuaren arabera aztertuz gero, lehenengo helburu mailakatuko (derrigorrez bete beharreko indizea %0 eta %25 bitartekoa) udaletan titularren %45,6k bete dute hizkuntza-eskakizuna, bigarren helburu mailakatukoetan (derrigorrez bete beharreko indizea %25 eta %45 bitartekoetan) %55,4 eta hirugarren helburu mailakatukoetan (derrigorrez bete beharreko indizea %45 eta %70 bitartekoetan) %59,8. Laugarren helburu mailakatuko udalek (derrigorrez bete beharreko indizea %70tik gora dutenek) dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten titularren ehunekorik handiena (%65,1)

Udaletako hizkuntza eskakizunen egoera, helburu mailakatuen arabera. EAE, 2010 (Derrigortasun data duten lanpostuak)



Iturria: Eusko Jaurlaritza

## 2.2.2. Erabilera Osasun Zerbitzuetan


Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. (EBPN, 54)

### ADIERAZLEAK


- Derrigortasun-data duten lanpostuak
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak guztira (edozein HE)
- Dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta, derrigortasun-datadun lanpostuetan
- Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenen bilakaera



Derrigortasun-data duten lanpostuak. Osakidetza, 2008-2010 (%)



Egiatzatutako hizkuntza-eskakizunak guztira (edozein HE). Osakidetza, 2008-2010 (%)



Iturria: Osakidetza

Derrigortasun-data duten lanpostuak. Osakidetza, 2008-2010 (%)

2010eko datuen arabera, Osakidetzako lanpostuen %17k daukate derrigortasun-data ezarrita, hau da, 4.177 lanpostuk. Lanpostu horietatik erdia baino gehiago (2.444) lehen mailako atentzioko zerbitzuei dagozkie, nahiz eta esparru horrek Osakidetzako lanpostu guztien %23 baino ez duen hartzen. Lanpostuen gainerako %75 atentzio espezializatuko zerbitzuei dagozkie, eta horietako 1.618 lanpostuk dute derrigortasun-data ezarrita.



Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko Dekretuak lehen mailako atentzioko zerbitzuei, herritarrengandik hurbilago daudelako eta euren eguneroko bizitzarekin lotura handia dutelako. Hortaz, derrigortasun-data gehienak herri eta auzoetako osasun-zentroetan, ambulatorioetan eta kontsultategietan ezarri dira, bertan diharduten familia-mediku, erizain, haurren atentzioko eta bezeroei atenditzeko lanpostuetan.

Egiatzatutako hizkuntza-eskakizunak guztira (edozein HE). Osakidetza, 2008-2010 (%)

2008an, hizkuntza-eskakizunen bat edo beste egiaztatuta zuten langileek Osakidetzako lanpostuen %20 ziren. Bi urte beranduago, 2010ean alegia, %26 da. Hortaz, sei puntuko igoera izan du bi urtetan.

Esparruka aztertuz gero banaketa ez da homoginoa, eta lehen mailako atentzian dute egiaztapen-ehunekorik altuena. Horrela, bada, 2008an lehen atentzioko lanpostuen %30etan langileek hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta zuten, eta 2010ean berriz %39,5etan, hau da, ia 10 puntuko hazkundera izan du. Atentzio espezializatuan 5 puntu hazi da ehunekoa, lanpostuen %17 izatetik %22ra igo da 2008-2010 bitartean.

Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenen bilakaera. Osakidetza, 2008-2010 (%)



Dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta, derrigortasun-datadun lanpostuetan. Osakidetza, 2008-2010 (%)

Iturria: Osakidetza

Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenen bilakaera. Osakidetza, 2008-2010 (%)

Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa, egiaztaturik zutenak %14,18 ziren 2008. urtean, %17,27 ziren 2009an, eta %20,10 ziren 2010ean. Hazkuntza ohargarria, sei puntukoa bi urtetan. Kontuan hartu behar da, hala ere, Euskara Plana ezarri eta ondoko urteetako datuak direla eta, hortaz, egiaztapen horiek lehendik euskaraz bazekiten langileei dagozkiela neurri handi batean..

Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna baino txikiagoa egiaztatu zuten lanpostuetako langileen %6k, 2008. urtean, ehuneko berdina 2009an, eta %6,4k izan dira 2010ean. Azken datu honen argitan, ez dirudi ondoko urteetan hazkunde ikusgarria izateko baldintzarik dagoenik.

Dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta, derrigortasun-datadun lanpostuetan. Osakidetza, 2008-2010 (%)

Derrigortasun-data ezarrita duten lanpostuei erreparaturaz, langile horien %40,9k betetzen zuten zegoien hizkuntza-eskakizuna 2008an, %49,9k betetzen zuten 2009an, eta %54,7k, berriz, 2010ean.

Atentzio-esparruaren arabera apenas dago alderik. 2010eko datuetan, egiaztapen-ehunekoak oso antzekoak ziren lehen mailako atentzioko zerbitzuetako lanpostuetan (%55,3), eta atentzio espezializatukoetan (%53,7).

Beraz, hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak hazi egin dira, ia 14 puntu bi urtetan. Hala ere, plangintzaldia amaitzeko urtebete falta denean, derrigortasun-data duten lanpostuen %45,3etan ez da oraindik dagokion hizkuntza-eskakizuna bete.

Lanpostuei ezarritako euskara-mailari dagokionean, normalkuntza-dekretuan ezarritakoari jarraituz, 2. hizkuntza-eskakizuna (2HE) ezarri zaie lehen mailako zerbitzuetako eta atentzio espezializatuko lanpostu guztiei, berdin dio mediku, erizain, laguntzaile edo bezeroak atenditzeko lanpostuak izan.

## 2.2.3. Erabilera Herrizaingo Zerbitzuetan

Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. (EBPN, 54)

### ADIERAZLEAK


- Ertzaintzaren dotazio guztien hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. 2008
- Derrigortasun-data duten dotazioen hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. Ertzaintza, 2008

Ertzaintzaren dotazio guztien hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. 2008 (%)

Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua 30/1998 DEKRETUAK, otsailaren 24koak, arautzen du. Ertzaintzako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna lanpostua betetzeko eta lanpostu horretan jarduteko beharrezkoa den euskara gaitasun mailaren arabera ezarriko da. Ertzaintzako lanpostuei 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak aplikatuko zaizkie. Baina, Ertzaintzako lanpostu gehienek ezaugarria herritarrekiko harremanean berehalakotasuna denez, Ertzaintzako lanpostu guztiei 1. hizkuntza-eskakizuna (B2) aplikatuko zaie, hizkuntza trebetasun jasoak eta bereziak behar dituzten lanpostuei izan ezik. Azken hauei 2. hizkuntza-eskakizuna (C1) aplikatuko zaie. Ertzaintzaren euskara-erabilera planak 1998-2008 epealdia hartu du. Bertan ezarritako derrigortasun-indizea %40,7koa da.

2008ko datuen arabera, Ertzaintzako dotazio guztien (8.000) %27,3k (2.184) egiaztatu dute dagoeneko hizkuntza-eskakizuna eta %53,4k ez dute oraindik egiaztatu. Ertzaintzako lanpostu hutsak %19,2 dira.

Ertzaintzaren dotazio guztien hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. 2008 (%)




Iturria: Herrizaingo Saila

### Derrigortasun-data duten dotazioen hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. Ertzaintza, 2008 (%)

2008ko datuen arabera, derrigortasun-data duten dotazioak 2.358 dira Ertzaintzan. Horietatik %75,6k (1.783) egiaztatuta dute hizkuntza-eskakizuna eta egiaztatu ez dutenak %2,2 (52) dira. Derrigortasun-data duten bost lanpostutik batek ez du titularrik. Ertzaintzan, oro har, oso gutxi dira adinagatik salbuetsita daudenak (%1 baino gutxiago).

### Derrigortasun-data duten dotazioen hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. Ertzaintza, 2008 (%)



Iturria: Herrizaingo Saila


## 2.2.4. Erabilera Justizia Administrazioan

Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.  
(EBPN, 54)

### ADIERAZLEAK

- Justiziako langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea
- Justiziako langile titularren hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea
- Justiziako langileak. Euskara ikasteko eskaeren bilakaera
- Epaille, magistratu, fiskal, idazkari judizialak eta bake-epailleak. Euskara ikasteko eskaeren bilakaera

Justiziako langileak. Euskara ikasteko eskaeren bilakaera. EAE, 2001/02-2007/08 (kop.)




Justiziako langileak. Euskara ikasteko eskaeren bilakaera. EAE, 2001/02-2007/08 (kop.)

Administrazio Publikoko gainerako eremuetara baino beranduago iritsi da Justizia Administrazioa euskalduntze-prozesua eta euskararen erabilera sustatzea.

Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizazioarako prozesuan mugarririk garrantzitsuenetakoa hizkuntza-normalizazioari buruzko 2001eko Dekretua izan zen. Dekretu hori tresna garrantzitsua izan da Justizia Administrazioa euskalduntzeko.

Horrela, onartu zenetik, euskara ikasteko eskaerak gora egin du etengabe transferitutako langileen artean. 2001/02 ikasturtean 419 ikaslek eman zuten izena eta 2007/08 ikasturtean 599 ikasle izan ziren. Hazkunde handia izan dute euskara-ikastaroez, %43koa, alegia.

Epaile, magistratu, fiskal, idazkari judizialak eta bake-epaileak. Euskara ikasteko eskaeren bilakaera. EAE, 2000/01-2007/08 (kop.)




Epaile, magistratu, fiskal, idazkari judizialak eta bake-epaileak. Euskara ikasteko eskaeren bilakaera. EAE, 2000/01-2007/08 (kop.)

Justizia Administrazioak egitura konplexua du. Horrez gain, Justizia Sailak ez du eskumenik karrera judizialeko, fiskaleko, eta idazkari judizialen kidegoko langileei dagokienez. Kidego horietako langileek ez dute nahitaez bete beharreko hizkuntza-eskakizunik.


Azken urteotan gorabeherak izan dira euskara ikasteko parte-hartzaileen kopuruan. Ikasteko eskaerak maila altuetara iritsi ziren 2000/01 ikasturtean. Gero jaitsi egin ziren, baina 2005/06tik aurrera euskara ikasten ari direnen kopurua berriro gorantz joan da. Horrela, 134 ikasle aritu ziren euskara ikasten 2000/01 ikasturtean eta 124, aldiz, 2007/08 ikasturtean.

Iturria: Justizianet

Justiziako langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. EAE, 2007 (%)



Justiziako langile titularren hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. EAE, 2007 (%)



Iturria: Justizianet

Justiziako langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. EAE, 2007 (%)

Justizia Administrazioako kidego desberdinetako hizkuntza-eskakizunen egiaztapenari dagokienez, 2007an langile titularren %5,2k lehen hizkuntza-eskakizuna egiaztatutik zuen, %18,2k bigarren hizkuntza-eskakizuna, %13k hirugarren hizkuntza-eskakizuna eta %0,6k laugarren hizkuntza-eskakizuna.

2010eko uztailan Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalkuntzari buruzko Dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak. Dekretu horretan erabaki da 10 urtetan Justiziako lanpostuen % 35 hizkuntza-eskakizun berezikoak izatea.

Dena dela, dekretuaren arabera, lanpostu generikoetan euskara merituz bezala baloratuko da, eta baldintzatuta hartuko da soilik eskakizun bereziko lanpostuetan sartzeko eta horiek betetzeko.

Justiziako langile titularren hizkuntza-eskakizunen egiaztatzea. EAE, 2007 (%)

Hasteko esan beharra dago, Justizia Administrazioako kidegoei esleitzen zaizkiela hizkuntza-eskakizunak eta ez lanpostuen zerrendari.

Kidegoen hizkuntza-eskakizunari dagokienez, laguntzaileen eta izapidetzaileen kidegoek bigarren hizkuntza-eskakizuna ezarrita dute eta kudeatzaileek hirugarren hizkuntza-eskakizuna.

2007an euren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatutik zuten langile titularren %28,3k eta dagokien baina gutxiago egiaztatuta %9k.




## 2.3. Erabilera IKTn

Jarraibide horiek oinarritzat hartuta, hona herri-administrazioen egitekoak: orain arte egindako ekimenak ordenatu, baloratu eta zabaldu; hizkuntza-baliabideen azpiegitura eraikitzeke euskarria prestatu; erabiltzaile-komunitate prestatua eta aurreratua sortu; edizio-eta itzulpen-plataforma edo sareak sortu, baita denen eskura egon daitezkeen hiztegi elektronikoak ere. (EBPN, 56)


### ADIERAZLEAK

- 15 urte edo gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, erabilitako hizkuntzaren arabera (kopurua)
- 15 urte edo gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, erabilitako hizkuntzaren arabera (%)
- Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara egindako sarreraren arabera. EAE, 2007 - 2008

15 urte edo gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, erabilitako hizkuntzaren arabera. EAE, 2001-2010



15 urte edo gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, erabilitako hizkuntzaren arabera. EAE, 2001-2010 (%)



Iturria: EUSTAT

15 urte edo gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, erabilitako hizkuntzaren arabera. EAE, 2001-2010

2010eko lehen hiruhilekoan, 15 urte edo gehiagoko biztanleen erdiak baino gehiagok (%52,6) erabili du Internet EAEn. Erabileran hazkunderik handiena izan dutenak 15 eta 24 urte bitarteko gazteak izan dira. Aipagarria da, aldi berean, 65 urtetik gorakoen artean ere gero eta gehiago erabiltzen dela Internet.

Gaztelania da EAEko erabiltzaileek Interneten erabiltzen duten hizkuntza. Erabiltzaile-kopuruak etengabe egin du gora azken hamar urteotan. Euskaraz nabigatzen dutenen kopuruak ere gora egin du, nahiz eta hazkundera askoz apalagoa izaten ari den. Gaur egun, euskararen erabilera ingelesaren parean dago.

15 urte edo gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, erabilitako hizkuntzaren arabera. EAE, 2001-2010 (%)

Esan bezala, EAEko Internet-erabiltzaile ia guztiek (%99,4) gaztelaniaz nabigatzen dute. Euskaraz nabigatzen dutenak %22,6 izan dira 2010eko lehenengo hiruhilekoan.


Azken urteotako bilakaerari begiratuz gero, 2005etik hona badirudi %20aren inguruan egonkortu dela euskaraz nabigatzen dutenen ehunekoa. Interneten nabigatzeko ingelesa erabiltzen dutenen ehunekoa ere oso antzekoa da (%22,1), azken jaitiera argi baten ondoren, euskaraz bezala %20atren inguruan egonkortu dela dirudi.

Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara egindako sarreraren arabera. EAE, 2007 – 2008

2007-2008ko datuen arabera, elebidunen %46,1ek jarduera kulturala egiteko, sarera sartzeko ohitura dute. Hala ere, horietatik erdia (%50) ez da inoiz sartzen Interneteko euskarazko edukietara.

Euskarazko edukietara sartzen direnek, web gune edo dokumentazio kulturalak (%36,7) eta musika (%22,4) dira gehien aukeratzen dituzten edukiak. Gainerako edukietara sartzen direnen ehunekoa nabarmen txikiagoa da, %8 baino txikiagoa.

Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara egindako sarreraren arabera. EAE, 2007 - 2008



Oinarria: Nolabaiteko jarduera kulturala egiteko, elebidunen %46,1 sartu ohi dira sarean.

Iturria: Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008. Kultura Saila


## 2.4. Erabilera enpresetan

Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresarielkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea. (EBPN, 56)


### ADIERAZLEAK

- Enpresetan euskara bultzatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako diru-laguntzak
- Enpresetan euskara bultzatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako enpresa-kopurua
- Euskara-plana duten enpresetan diharduten langileak

### Enpresetan euskara bultzatzeko, HPSk emandako diru-laguntzak, 1997-2009



### Enpresetan euskara bultzatzeko, HPSk diruz lagundutako enpresa-kopurua, 1997-2009



Iturria: HPS

### Enpresetan euskara bultzatzeko, HPSk emandako diru-laguntzak, 1997-2009

1997az geroztik, urteko deialdiaren bidez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) entitate pribatuetan euskara-planak garatzeko diru-laguntzak bideratu ditu.

Urterik urte gero eta handiagoa izan da enpresen partaidetza, eta baita administrazioak helburu horretara zuzendutako diru-kopurua ere.

Hiru aldi nagusi izan ditu laguntza-lerro honek:

- 1997-1999 bitartean, urtero 100.000€ inguru banatu ziren. Enpresen partehartzea azkar hazi zen, bi urtetan 13 enpresatik 39ra igoz.
- 2000n argitaratu zen lehen aldiz enpresei berariaz zuzendutako diru-laguntza deialdia. Bost urtetan etengabe goraka joan ziren enpresen partaidetza eta administrazioaren diru-horniketa.
- 2006tik aurrera eman da hazkuntzarik handiena. Urte horretan *LanHitz* programa-markoa abian jarri zen, euskara sustatzeko herri-administrazioen eta eragile sozioekonomiko pribatuen arteko elkarlana uztartzen zuena. Horren baitan, nabarmentzekoa da *Erreferentzia Marko Estandarra* (EME), enpresei euskara-planak modu sistematizatuan diseinatzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzen dien eredia.

### Enpresetan euskara bultzatzeko, HPSk diruz lagundutako enpresa-kopurua, 1997-2009

1997-2009 bitartean, 285 enpresek jaso dute euskara-plana egiteko diru-laguntza. Enpresa batzuk diseinu fasean gelditu badira ere, gehienek aurrera egin dute, neurri batean ala bestean enpresan euskara-plana inplementatu arte.

Hala bada, diru-laguntza eskatzen duten enpresek jarraitu egiten dute, ondoko urteetan ere, eskaera aurkezten; euren euskara-planarekin aurrera doazenaren adierazgarri. Urte batetik bestera jarraitzen ez dutenak eskatzaileen %10 inguru izaten dira, beraz, altua da jarraipenen ehunekoa.

Euskara-plana duten enpresetan diharduten langileak, 2004-2009\*


Azken urteetako deialdietan, langile-kopuruari buruzko informazioa jaso da.

2004an diruz lagundutako enpresetan, hau da, euskara-plana zuten enpresetan, 16.000 lagunek egiten zuten lan; 2009an, berriz, 24.900ek. Beraz, bost urtetan %53ko hazkundera izan da. Zenbaki horren barruan daude enpresetako langile guztiak, ez bakarrik euskara-planak zuzenean eragiten dien langileak, guztiengan baitu eragina enpresako euskararen erabilera sustatzeak.

Lurraldeari erreparatuta, 1997-2009 bitartean lagundutako enpresen %58 Gipuzkoan kokatuta daude, %36 Bizkaian, eta %5 Araban.

Aktibitate-sektorearen arabera, enpresen erdia baino gehiago (%56) zerbitzu-sektorekoak dira, %43 industriakoak eta %1 lehen sektorekoak.

Euskara-plana duten enpresetan diharduten langileak, 2004-2009\*



Iturria: HPS

## 2.5. Erabilera aisialdian

Bizitza-antolaketan eta egituretan aisialdiak gero eta leku handiagoa du eta hizkuntzaren normalkuntza-bidean duen eragina areagotu egin da, beraz; azken urteotan, euskarazko eskaintza nabarmen hazi baita.

(EBPN, 30)

### ADIERAZLEAK


- Oporraldietako aisialdi-programak, hizkuntzaren arabera. EAE, 2010
- Oporraldietako aisialdi-programak, adin-taldearen eta hizkuntzaren arabera. EAE, 2010
- Oporraldietako aisialdi-programak, erakunde antolatzaileen eta hizkuntzaren arabera. EAE, 2010

Oporraldietako aisialdi-programak, hizkuntzaren arabera.  
EAE, 2010

2010eko datuen arabera, EAEn identifikatutako oporretako aisialdi-programen %52 euskaraz bakarrik eskaintzen dira, %31,2 programa elebidunak dira (euskaraz eta gaztelaniaz) eta gaztelaniaz bakarrik eskaintzen dira programen %3,1.

Hala ere, desberdintasunak ikus daitezke lurralde historikoaren arabera. Horrela, Gipuzkoaren kasuan, hamar programaren artetik zazpi euskaraz bakarrik eskaintzen dira eta Bizkaian, berriz, ez dira eskaintzaren erdira iristen euskarazko programak (%47,8), Araban, azkenik, %30,5 dira euskarazko programak eta hamar programetatik lau elebidunak dira.

Oporraldietako aisialdi-programak, hizkuntzaren arabera.  
EAE, 2010 (%)



Iturria: Oporretako aisialdi eta astialdirako baliabideen Mapa, 2010. Gazteen Euskal behatokia. Eusko Jaurlaritza.



Oporraldietako aisialdi-programak, adin-taldearen eta hizkuntzaren arabera. EAE, 2010


Euskaraz bakarrik eskaintzen diren programak nagusitzen dira 0 eta 12 urte arteko hartzaileengana zuzentzen den eskaintzaren barruan (programen %60 baino gehiago euskaraz eskaintzen dira)

Bestelakoa da 12 eta 18 urte arteko hartzaileengana zuzentzen den eskaintzaren egoera. Apenas gainditzen du eskaintzaren laurdena (%26,9).

12 urtetik aurrera gutxitu egiten da nabarmenki euskaraz bakarrik eskaintzen diren programen kopurua eta eskaintza elebiduna nagusitzen da. Eskaintza elebidunarekin batera 12 urtetik aurrera gora egiten du nabarmen ingeleseko programen eskaintza.

Adibide gisa, 16 eta 18 urteko hartzaileei egiten zaien eskaintza: euskarazko programak %18,8 dira eta ingelesezkoak %28,8.

Oporraldietako aisialdi-programak, adin-taldearen eta hizkuntzaren arabera. EAE, 2010 (%)



Iturria: Oporretako aisialdi eta astialdirako baliabideen Mapa, 2010. Gazteen Euskal behatokia. Eusko Jaurlaritzia.


Oporraldietako aisialdi-programak, hizkuntzaren eta erakunde antolatzailearen arabera. EAE, 2010

Aisialdi-eskaintza erakunde antolatzailearen arabera aztertuz gero, 2010ean udalek jarduera guztien %69,5 eskaini dituzte eta aurrezki-kutxek %15,6. Gainerako erakundeek eskainitako aisialdi-programen kopurua txikia da (%6tik behera). Hizkuntzari dagokionez, udalek eskainitako aisialdi-programa gehienak (%65,4) euskara hutsean dira eta %33,2 euskaraz eta gaztelaniaz. Aurrezki-kutxek, aldiz, hamarretik ia zazpi ingelesez eskaini dituzte (%69,6). Foru-aldundiek antolatutako programen %42,1 euskaraz eta gaztelaniaz eskaini dituzte eta %21,4 euskara hutsean. Foru-aldundien gaztelania hutsezko eskaintza eta ingelesezkoa berbera da (%15,8).

Oporraldietako aisialdi-programak, hizkuntzaren eta erakunde antolatzailearen arabera. EAE, 2010


Foru-aldundiak

Guztira: 19




Udalak

Guztira: 205




Mankomunitateak

Guztira: 15



Aurrezki-kutxak

Guztira: 46



■ Euskaraz ■ Gaztelaniaz ■ Elebietan ■ Ingelesez ■ Beste batzuetan

Iturria: Oporretako aisialdi eta astialdirako baliabideen Mapa, 2010. Gazteen Euskal behatokia. Eusko Jaurlaritzia.

## 3. Euskararen elikadura

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egingo bada, elikatu egin behar da, liburu, irratí, aldizkari egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio. (EBPN, 58)

### EREMUAK

- 3.1 Corpus-plangintza
- 3.2 Prentsa idatzia
- 3.3 Liburugintza
- 3.4 Irratia eta telebista
- 3.5 Kulturgintza

## 3.1. Corpus-plangintza

### ADIERAZLEAK

- Euskaltzaindiak finkatutako formaren arabera izena ofizialduta duten udalerrriak. EAE, 1995-2011
- Euskarazko IKTen proiektuak eta agente teknologikoak, lan arloaren arabera. 2010


Euskaltzaindiak finkatutako formaren arabera izena ofizialduta duten udalerriak. EAE, 1995-2010

Euskararen erabilpena arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 10.1 artikulua arabera, jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelaniazkoari dagokion idazkerari men egin behar zaio biztanle-entitateen izenak aldatu, egokitu edo finkatzeko orduan. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EAEko biztanle-entitateen izenak era egokian, hau da, Euskaltzaindiak finkatutako formaren arabera, ofizialtzeko beharra nabarmendu eta azken urteotan helburu hori betetzeko ahaleginean jardun izan du.

2010ean EAEko 251 udalerrietatik 243k izena ofizialduta dute Euskaltzaindiak finkatutako formaren arabera. Hortaz, 8 udalerrri daude oraindik egin ez dutenak (Arabako 5, Bizkaiko 2 eta Gipuzkoako 1). 1995ean, Euskaltzaindiak finkatutako formaren arabera ofizialduta zuten udalerriak 184 ziren.

Biztanle-entitateei dagokienez, 2011n izena Euskaltzaindiak finkatutako formaren arabera ofizialduta duten biztanle-entitateak (udalerriak barne) 1.304 dira.

Euskaltzaindiak finkatutako formaren arabera izena ofizialduta duten udalerriak. EAE, 1995-2010



Iturria: HPS

## Euskarazko IKTen proiektuak eta agente teknologikoak, lan arloaren arabera. 2010

IKTen arloan, azken urteotan, administrazioen eta agente teknologikoen ekimenez euskara integratzen duten proiektu asko garatu da: sistema eragileak, bulegotika paketeak, plugin-ak, hitz-zatitzailea, Xuxen zuzentzaile ortografikoaren bertsio guztiak eta enpresentzako kudeaketako softwareak, besteak beste.

**Hizkuntza-baliabideak:** euskararako motoreak garatzeko hitzarmena (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak), hiztegi elektronikoak, datu-base lexikalak, corpusak (corpus estatistikoa, Zientzia eta Teknologia corpusa, literatura-corpusak), ahotsaren teknologietan integratzeko baliabideak (datu-base akustikoak, lexiko fonetikoak, testu-corpusa), itzulpen-memoriak, aldizkari ofizialen corpus etiketatua, terminologia banku publikoa (Euskalterm), toponimia (EAEko datu-basea) eta onomastika (Euskaltzaindiaren izendegiak)...

**Hizkuntza-tresnak:** bilatzaileak, lematizatzaileak, analizatzaileak, zuzentzailea, etiketatzaileak, thesaurusak, erauzketa automatikoak egiteko tresnak, itzulpen automatikorako tresnak...

## Euskarazko IKTen proiektuak eta agente teknologikoak, lan arloaren arabera. 2010

## Proiektu-kopurua eta agente teknologikoak, lan arloaren arabera. 2010

Lan-arloa	Proiektuak	Agenteak
hizkuntza-baliabideak eta -tresnak	75	4
itzulpengintzari laguntzeko tresnak	16	3
sistema interaktibo aurreratuak	20	2
informazioaren eta jakintzaren kudeaketa	25	3
euskarazko softwarea	218	5
edukien industria (euskarazko eduki digitalak sortzea)	9	1
prestakuntza/e-learning	9	3
e-inklusioa	5	1
besterik	6	4

Iturria: HPS

## 3.2. Prentsa idatzia

Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini. (EBPN, 58)

### ADIERAZLEAK

- Euskarazko eguneroko prentsa inprimatua
- Euskarazko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
- Euskarazko tokiko aldizkariak
- Internet bidezko hedabideak eta berri agentziak

## Euskarazko eguneroko prentsa inprimatua. 2010eko tiradak

Oso ezaugarri desberdineko hiru egunkari argitaratzen dira euskaraz, Berria, Hitza eta Hernaniko Kronika. 2003an sortu ziren hirurak.


Bere ezaugarriengatik Berria da egunkari orokortzat jo dezakegun bakarra. Izan ere, kioskoetan saltzen da, edozein egunkarik izan ohi dituen atal bertsuak ditu, gehigarriak ere baditu. Euskaldunon Egunkaria itxi ostean sortu zen.

16.400 aleko tirada duen Berria egunkariak baditu berezitasun batzuk, lehiakide izan ditzakeen ohiko egunkarien aldean. Astelehenetan ez argitaratzeaz gain, ale kopuru handia harpidetza bidez banatzen da.

Hitza zazpi eskualdetan banatzen da gaur egun eta eskualdeko gaiak jorratzen ditu zortzi edo hamabi orrialdetan. Guztira 32.260 Hitza argitaratzen dira egunero, astelehenetan salbu.

Hernaniko Kronika ere 2003an sortu zen. Herrian banatzen den bi orriko egunerokoa da eta 4.600 aleko tirada du.

## Euskarazko eguneroko prentsa inprimatua. 2010eko tiradak.



Iturria: HPSk diruz lagundutako euskarazko hedabideak




Euskarazko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak

Informazio orokorra ematen duten bi aldizkari argitaratzen dira gaur egun: Argia eta Aldaketa 16. Multzo honetan bazen beste aldizkari bat, Zabalik deitzen zena, baina 2005eko abenduaren 29an desagertu zen. Horietatik Argiak du pisurik handiena, 9.500 ale argitaratzen baititu astero.

Aldizkari espezializatuak dagokienez, 14 aldizkari ziren 2000. urtean eta 21, aldiz, 2010ean. Gero eta aldizkari espezializatu gehiago argitaratzen dira euskaraz.

Aldizkari espezializatuen artean bada gazteei zuzendutakorik, Gaztezulo hain zuzen, edo euskara ikasten ari direnei, Aizu esate baterako. Gaien aldetik espezializatuak direnen artean honako hauek aipa daitezke: Zazpi Haizetara, Nora, Elhuyar, Nabarra, Bertsolari, Nabarra, Gaur8, Aldiri, Uztaro, Jakin, Bat, eta abar.

Euskarazko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak.



Iturria: HPSk diruz lagundutako euskarazko hedabideak

Euskarazko tokiko aldizkariak. 2000-2010


Tokiko aldizkariak gertuko informazioa jorratzen dute, dela herrikoa dela eskualdekoa.

Euskarazko tokiko aldizkarien artean eskualde jakinetan zabaltzen diren aldizkariak eta udalerrietan zabaltzen direnak desberdinduko ditugu. Izan ere, 2000. urtean tokiko aldizkari gehienak udalerrri mailakoak ziren, 24 hain zuzen ere, eta 5 besterik ez eskualde mailakoak.

Urteak aurrera egin ahala joera aldatu egin da. Horrela 2010ean 15 aldizkari daude eskualde mailakoak eta 17 udalerrri mailakoak. Hortaz, eskualdeetako aldizkariak gora egin dute eta udalerrietakoek, ostera, behera.

Tokiko aldizkarien artean aipagarriak dira besteak beste, Goiena, Anboto, Goierritarra, Eta Kitto, Aiurri eta UK.

Euskarazko tokiko aldizkariak. 2000-2010.



Iturria: HPSk diruz lagundutako euskarazko hedabideak

## Internet bidezko hedabideak eta berri agentziak. 2000-2010

Internet bidezko 17 hedabidek jaso zuten HPSren dirulaguntza 2000. urtean eta 36 hedabidek eta berri agentzia 1ek 2010ean. Izugarrizko hazkundea izan dute hamarkada batean.

Europa Press da internet bidezko euskarazko berri agentzia bakarra.


Gehienak prentsa idatziari lotutako hedabideak dira. Horien artean aipagarriak dira, besteak beste, Berria.info, Hitza.info eta Argiaren Haria. Tokiko aldizkari gehienek ere badituzte internet bidezko hedabideak.

Badira internet bidez soilik zabaltzen diren hedabideak, hala nola, Zuzeu.com eta Bizkaie!.

Horiez gain, bada bat gazteentzako musika eskaintzen duena, Entzun.com, hain zuzen.

Azkenik, internet bidezko hiru irrati ere aipa daitezke: Hala Bedi, Pausuirratia. Net eta Soinuola.

## Internet bidezko hedabideak eta berri agentziak. 2000-2010.



Iturria: HPSk diruz lagundutako euskarazko hedabideak

### 3.3. Liburugintza

Merkatu-zirkuitu desberdinetarako produktuak ekoiztu, salmentagune bakoitzean egoki izango direnak: gazte-literatura, bide-liburuak, gidak, komikiak eta abar. Kioskoan dago hutsunerik handiena, eta, bestek beste, oso kokagune aproposa da faszikuluka zabaltzen diren bildumentzat. (EBPN, 59)

#### ADIERAZLEAK

- Argitaletxeak eta argitalpenak
- Argitalpen digitalak
- Argitaratzaile motak
- Eskaintza editorialaren bilakaera
- Nobedadeen eta berrargitalpenen arteko bilakaera
- Jatorrizko eta itzulitako liburuen bilakaera
- Liburuen berrargitalpenak
- Berrargitalpenen bilakaera
- Argitaratutako liburuen gai nagusiak


Argitaletxeak eta argitalpenak (2009)

2009. urtean 277 argitaratzailek 2.342 titulu argitaratu dituzte euskaraz. Argitaratzaileen erdiak baino gehiagok liburu bakarra atera dute (%56). Are gehiago, %93k 20 liburu baino gutxiago argitaratu dituzte.

Ikusten denez, kontzentrazio handia dago. Horrela, sei argitaletxeek 100 titulutik gora argitaratu dituzte. Horiek argitaletxe handitzat jo ditzakegu. 20-100 titulu argitaratu dituztenak 13 argitaletxe dira, hots, ertaintzat jo ditzakegu. Gainerakoek, 258 argitaletxeek 20 titulu baino gutxiago atera dituzte eta argitaratzaile txikitat jo ditzakeau.

Tituluak	Argitaletxeak
1	157
2-4	58
5-9	24
10-19	19
20-39	4
40-59	4
60-79	4
80-99	1
100-149	4
150etik gora	2

Argitaletxeak eta argitalpenak (2009)



Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdai. Jakin 182, urtarrila/otsaila 2011


Argitalpen digitalak, 2007-2009

Liburu digitalari dagokionez, kopuruz oraindik gutxi badira ere, hazkunde handia izan dute 2007tik aurrera. Izan ere, 2007an 12 liburu digital argitaratu ziren, 90 izan ziren 2008an eta 211, aldiz, 2009an.


Euskarazko liburu digitalek unibertsitatean dute jatorria. Kopuruei erreparatuz, azken urte hauetan, UEUk 119 liburu argitaratu ditu, Deustuko Unibertsitateak 85 eta EHUK 17. Orain arte doktore tesien argitalpenak izan dira gehienak. 2008an, esate baterako, liburu digital guztien %66 tesiak ziren, baina jaitsiera izan du 2009an. Izan ere, argitaratutako liburu digitalen %24,5 izan dira tesiak.

2009an unibertsitateek ez ezik beste argitaratzaile batzuk ere indarra hartu dute liburu digitalen ekoizpenean, hala nola, Elkar (%22,5) eta Alberdania (%21,5) argitaletxeek. Bi argitaletxe horiek Deustuko Unibertsitatearekin (%27,5) eta UEUrekin (%24,5) batera, ekoizpen digital osoaren %96 osatu dute.

Argitalpen digitalak, 2007-2009



Liburu digitalak argitaratzaileen arabera, 2009 (%)



Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdai. Jakin 182, urtarrila/otsaila 2011

Argitaratzaile motak (2009)

**Bertoko argitaletxe pribatu komertzialak:** 2009ko ekoizpen osoaren %44 dute eta berrargitalpenen erdia baino gehiago ere badute (%57,7). Ekoizpenik handiena helduen literaturan, haur eta gazte literaturan eta irakaskuntzarako liburuetan dute.

**Argitaratzaile publikoak:** Ekoizpen osoaren %11 dute. Ez dute berrargitalpenik izaten. Eusko Jaurlaritzak da nagusi (%60).


**Elkarte, talde eta gisa berekoak:** Ekoizleen %30 diren arren, ekoizpenaren %6,5 osatzen dute. Indartsuenak Euskaltzaindia, Kutxa Fundazioa, Eusko Ikaskuntza eta Labayru dira. Era berean, %42k titulu bakarria ateratu dute eta ez dute berrargitalpenik izaten.

**Kanpokoak:** Ekoizpenaren %20,5 dute. Egoitza nagusia Euskal Herritik kanpo dute. Argitaletxe profesional indartsuak izaten dira. Ia produkzio osoa irakaskuntzara eta haur eta gazte literaturara dute bideratuta. Nobedade asko argitaratzen dute eta berrargitalpenak %21,2 dira. Itzulpenak ere indar handia du.

**Unibertsitateetakoak:** Ekoizpenaren %8,5 dira. Edizio digitalak indar handia du multzo honetan. Oso berrargitalpen gutxi dute.

**Koedizioa:** Ekoizpenaren %7 dira. Elkarren eta ikastolen Elkartearen arteko koedizioak dute multzo honetako ekoizpen osoaren %78 eta berrargitalpenen %75.

Argitaratzaile motak eta ekoizpena, 2009 (%)



Argitaratzaile mota	Ekoizleak	Ekoizpena	%
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	48	1.034	44
Argitaratzaile publikoa	44	254	11
Elkarte, talde, fundazio	84	148	6,5
"Kanpokoak"	39	480	20,5
Irakaskuntzakoa	19	204	8,5
Koedizioa	22	160	7
Besterik	23	57	2,5

Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdai. Jakin 182, urtarila/otsaila 2011


## Eskaintza editorialaren bilakaera. 2000-2009

2009ko tituluaren kopuruari erreparatuz gero, iazkoa baino txikiagoa dela ikus daiteke. 2.342 liburu dira 2009an eta 2.573, aldiz, 2008an. Dena dela, hamarkada guztia kontuan hartuz gero, azpimarratzekoa da inoizko liburu kopururik handiena argitaratu dela mende honetan.

2000tik 2009ra bitarteko eskaintza editorialak hazkuntza handia izan du oro har, nahiz eta urtetik urterako datuetan gorabeherak izan diren. Horrela, 2000tik 2009ra %54ko igoera izan du argitaratutako titulu desberdinen eskaintzak.

ISBNren irizpidea hartu da aintzat. Era berean, euskarri desberdinetako argitalpenak jaso dira, hau da, paperezkoak zein digitalak.

## Eskaintza editorialaren bilakaera. 2000-2009



Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdei. Jakin 182, urtarrila/otsaila 2011




## Nobedadeen eta berrargitalpenen arteko bilakaera. 2000-2009 (%)

Hasteko, aipagarria da hamarkada guztian zehar nobedadeen zein berrargitalpenen arteko tartea nahiko antzekoa dela. Horrela, urtero %70-72 inguru nobedadeak dira eta %30-28 berrargitalpenak. 2009an, esate baterako, argitalpenen %71 lehen edizioak dira eta %29, ordea, berrargitalpenak.

Dena dela, lehen edizioak eta berrargitalpenak alderatuz, esan daiteke berrargitalpena indarra hartzen ari dela. Esate baterako, 2009an aurreko urtean baino 183 argitalpen berri gutxiago kaleratu ziren, baina berrargitalpenak 48 gutxiago baino ez ziren izan.

Hamarkada osoan lehen edizioko argitalpenek bi urtetan izan dituzte jaitsierak, 2006an eta 2009an.

## Nobedadeen eta berrargitalpenen arteko bilakaera. 2000-2009 (%)



Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdai. Jakin 182, urtarrila/otsaila 2011


Nobedadeen barruan bi liburu mota daude, jatorrizkoak, hau da euskaraz sortuak, eta itzulitako liburuak.

Lehen edizioko liburuen artean jatorrizkoen eta itzulitakoen bilakaerari erreparatuz, nabarmentzekoa da 2008tik 2009ra itzulitako liburuaren kopuruak izan duen jaitsiera eta jatorrizko liburuaren argitalpenak, ordea, izan duen igoera. Horrela, 2009an 2008an baino itzulitako 251 liburu gutxiago argitaratu dira eta jatorrizko 68 liburu gehiago.

Hamarkada guztiko datuak kontuan hartuz, ikus daiteke 2009 urteak izan duela jatorrizko liburuaren aldeko ehunekorik altuenetakoa. Horrek azken urteotako joera aldatu du, nahiz eta oraindik ezin den jakin joera hori iraunkorra izango den. Hamarkada osoaren batez bestekoaren datuak honakoak dira: %69 jatorrizkoak eta %31 itzulpenak. 2009ko datuak honako hauek: %72 jatorrizkoak eta %28 itzulpenak.

Jatorrizko eta itzulitako liburuaren bilakaera. 2000-2009 (%)

### Jatorrizko eta itzulitako liburuaren eboluzio-lerroa. 2000-2009




Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdai. Jakin 182, urtarrila/otsaila 2011

## Berrargitalpenen bilakaera. 2000-2009

Datu orokorrak kontuan hartuz, 2000. urtetik 2009. urtera berrargitalpenek %38ko hazkundera izan dute.

Dena dela, hazkunde horrek gorabehera ugari izan ditu urtez urteko datuei erreparaturaz gero. Horrela, berrargitalpenek 2001ean eta 2004an behera egin zuten nahiko nabarmen, baina 2006tik aurrera hazkunde handia izan dute, nahiz eta azken urtean apurtxo bat behera egin duten.

## Berrargitalpenen eboluzio-lerroa. 2000-2009



Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdai. Jakin 182, urtarrila/otsaila 2011

Argitaratutako liburuen gai nagusiak (2009)

Gaiaren arabera, argitaratutako liburuak bi multzo nagusitan sar daitezke. Lehenengo multzoan hezkuntza, irakaskuntza, haur eta gazteentzako liburuak, giza eta gizarte zientziak eta helduen literatura koka daitezke. Ekoizpen osoaren %90 baino gehiago dira. Bigarren multzoan, ordea, zientzia eta teknika, aisia, erlijioa eta horrelako liburuak sartzen dira. Oso gutxi dira eta pisu txikia dute.


Aurreko urteetan legez 2009an ere irakaskuntzako liburuak dira nagusi. 747 titulu argitaratu dira guztira, hau da, argitaratutako titulu guztien %32. Horrezaz gain, esan beharra dago tirada handiena eta berrargitalpen gehien duten liburuak direla.

Haur eta gazteentzako argitalpenak 508 izan dira (titulu guztien %22). Irakaskuntzakoekin batera argitaratutako titulu guztien erdia baino gehiago dira. Berrargitalpenek ere indar handia dute eta asko itzulitako liburuak dira (%50 nobedadeen artean).

Giza eta gizarte zientzietako liburuek ere indar handia dute. 445 titulu atera dira 2009an (titulu guztien %19). Liburu mota honek berrargitalpen gutxi du (%6).

Helduen literaturari dagokionez, 380 titulu argitaratu dira 2009an (titulu guztien %16). Torrealdaiak dienez, urteetako ehunekorik altuena izan du 2009an helduen literaturak. %24ko igoera izan du urtebetean.

Argitaratutako liburuen gai nagusiak, 2009 (%)



Gai multzoa	Zbk. absolutuak	%	2009/2000
Hezkuntza, Irakaskuntza	747	32	+46,7
Haur eta gazteentzako liburuak	508	22	+36,9
Giza/gizarte zientziak	445	19	+73,8
Helduen literatura	380	16	+48,4
Zientzia, Teknika	140	6	+86,4
Aisia liburuak	58	3,5	+137,3

Iturria: Euskal Liburugintza 2009. Joan Mari Torrealdai. Jakin 182, urtarrila/otsaila 2011

## 3.4. Irratia eta telebista

Entzulea erakartzeko interesgune bizi-biziak sortu, orain, garai batean ez bezala, irratiaz gain komunikaziorako eta entretenimendurako aukera ugari baitugu etxean.

Aisialdian euskararen erabilera ziurtatzea nahi badugu ezinbestekoa da telebista orokorra egitea: familia osoarentzako programak, irekiak, denontzako modukoak, jende guztiarengana heltzeko modukoak eta arrakastatsuak. (EBPN, 59)

### ADIERAZLEAK

- HPSk diruz lagundutako irrati eta telebista pribatuak. 2000-2010
- EITB taldeko irratien audientzien bilakaera
- EITB taldeko telebisten audientzien bilakaera
- Elebidunek euskarazko telebistak ikusten eta irratiak entzuten ematen duten denbora, EAE, 2007- 2008

## HPSk diruz lagundutako irrati eta telebista pribatuak. 2000-2010


2010ean emititu ahal izateko beharrezkoak diren tituluen jabe izanik, zati batean edo osorik euskaraz ari diren 4 irratiak izan dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren dirulaguntza. Honako hauek dira: Arrate Irratia, Bizkaia Irratia, Segura Irratia eta Xorroxin Irratia.

Bilakaerari dagokionez, 2000tik 2007ra arte irrati gehiago laguntzen ziren diruz, 7 eta 10 irrati bitartean, urtearen arabera. Urte horietan udal irratitzat jo daitezkeen zenbait irrati ere diruz laguntzen ziren. Dena dela 2007tik aurrera murriztu egin ziren diruz lagundutako irratia eta 5ek jasotzen zuten diru laguntza 2009ra arte, hau da, arestian aipaturiko lau irratiek eta Loiola Herri Irratiak.

Bestalde, 2010ean emititu ahal izateko beharrezkoak diren tituluen jabe izanik, zati batean edo osorik euskaraz ari diren 8 telebistak izan dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren dirulaguntza. Besteak beste, aipagarriak dira, Hamaika Telebista, Goiena Telebista, 28 Kanala, Zarautz Telebista, Erlo Telebista, Goierritarra...

Horietan nagusiena Hamaika Telebista da, Euskal Herri osorako emititzen baitu. Gainerakoak toki telebistak dira.

## HPSk diruz lagundutako irrati eta telebista pribatuak. 2000-2010



Iturria: HPSk diruz lagundutako euskarazko hedabideak

Bestalde, aipatzekoa da 2009tik aurrera Hamaika Bilboz gain, Hamaika Donostia ere badagoela.

Telebisten bilakaerari dagokionez, esan beharra dago hasierako urteetan gehiena erdaraz emititzen zuten zenbait telebistari dirulaguntza ematen zitzaiela, adibidez, Canal Gasteiz, Canal Bizkaia, Durango Telebista, baina egun ez.

## EITB taldeko euskarazko IRRATIEN audientziak. EAE eta Nafarroa, 2000-2010


Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea eta EITB irratiak osatzen dute euskarazko irrati publikoen multzoa. Audientzia eta ezaugarri desberdinetako irratia dira.

Audientziak kontuan hartuta, gorabehera batzuk izan arren, esan daiteke Euskadi Irratiaren audientzia gorantz joan dela 2000-2010 bitartean. Aipagarria da lehenengo bost urteetan izan zituela audientzia daturik apalenak, 2006ra arte hain zuzen (69.000-72.000 entzule bitartean urte horietan). 2006tik aurrera audientziak gora egin du. Horrela, 93.000 entzule izan ditu 2010ean, hamarkada osoko daturik altuena, hain zuzen.

Gazteei zuzendutako Euskadi Gaztea irratia audientziari erreparatuz, esan beharra dago hazkunde handia izan duela azken bi urteetan. Horrela, 2008tik 2009ra 30.000 entzule irabazi ditu eta beste 15.000 entzule 2009tik 2010era.

Musika oinarri duen EITB irratia dagokionez, beste irratia biek baino askoz ere audientzia datu xumeagoak ditu. Dena dela, bere audientzia handituz joan da urterik urtera. Irrati honek 5.000 entzule zituen 2001ean eta 25.000 entzule, oster, 2010ean.

## EITB taldeko euskarazko IRRATIEN audientziak. EAE eta Nafarroa, 2000-2010



Iturria: HPSk diruz lagundutako euskarazko hedabideak

### EITB taldeko euskarazko TELEBISTEN audientziak. EAE eta Nafarroa, 2000-2010


ETB1ek eta ETB3k osatzen dute euskarazko telebista publikoen multzoa. Hauek ere, irrati publikoak bezala, ezaugarri eta audientzia desberdinetako telebistak dira.

ETB1eko audientzia datuei erreparatuz, aipagarria da 2000tik 2010era bitartean audientziak behera egin duela, nahiz eta beherakada ez izan oso handia. Audientzia daturik apalena 2008. urtekoa izan zen 175.000 ikus-entzulerekin. Audientzia daturik altuena, berriz, 2003an izan zuen 226.000 ikus-entzulerekin.

ETB3 oso telebista berria da. 2010eko audientzia datuak baino ez ditugu. Horrela, CIESen arabera, 16.000 ikus-entzule izan ditu ETB3k 2010ean.

Bestalde, azpimarratzeko da ETBko hirugarren kateak 2010eko martxoan edukiak berrantolatu zituela, euskarazko gazte eta haurrentzako kate bilakatzeko asmoz. Kateak haur programazioa indartu zuen. Euren hitzetan "ETB3k EITB Komunikazio taldeko kate nagusia bilakatu nahi du eta haur eta gazteentzako edukietan".

### EITB taldeko euskarazko TELEBISTEN audientziak. EAE eta Nafarroa, 2000-2010



Iturria: HPSk diruz lagundutako euskarazko hedabideak



Elebidunek euskarazko telebistak ikusten eta irratiak entzuten ematen duten denbora. EAE, 2007- 2008


2007-2008ko datuen arabera, elebidunen %91,4k telebista ikusteko ohitura dute, eta ez dago alde nabarmenik adinaren, sexuaren edota hizkuntza-gaitasunaren arabera. Telebista ikusteko ohitura dutenek batez beste 16,8 ordu ematen dute astean telebista aurrean.

Telebista ikusteko ohitura duten hamar elebidunetik zazpi euskarazko telebista ikusten dute. Astegunetan, euskarazko telebistak ikusteko ohitura duten elebidunek telebista aurrean ematen duten denboraren herena (%32,4) ematen dute euskarazko telebistak ikusten; asteburuetan eta jaiegunetan zertxobait gutxiago (ia %30).

2007-2008ko datuen arabera, elebidunen artean Irratia entzuten dutenen ehunekoa telebista ikusten dutenena baino txikiagoa da (%76). Telebistan ez bezala, gazteek gainerako adin-taldeek baino ohitura txikiagoa dute irratia entzuteko.

Irratia entzuteko ohitura duten elebidunen herenak baino gehiagok (%35,8) ez dute inoiz euskarazko irratiarik entzuten lanegunetan, eta erdiak asteburuetan. Aldiz, irratia entzuteko ohitura duten bost elebidunetik batek (%19,2) euskarazko irratiak baino ez ditu entzuten lanegunetan.

Elebidunek euskarazko telebistak ikusten eta irratiak entzuten ematen duten denbora. EAE, 2007- 2008



Iturria: Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008. Kultura Saila

## 3.5. Kulturgintza

Euskaraz bakarrik jaso daitekeen hori irrikagarri egiten ahalegindu eta horren berri eman erdaldunei ere; hau da, euskal kulturaren emaitzak barreiatu, euskaraz ez dakienak zerbait galtzen duen irudipena izan dezan. Erdarazkoei aurrea hartu. (EBPN, 60)

### ADIERAZLEAK

- Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera
- Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta adin-taldearen arabera
- Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan direnaldien eta adin-taldearen arabera
- Bertsolaritza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsona elebidunak, adin-taldearen arabera


Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2007-2008

2007-2008ko datuen arabera, azken hiru hilabetezkoan liburuen bat irakurri duten elebidunen %35,7k euskarazko liburuen bat irakurri dute.

Euskarazko libururik irakurri dutenen ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala. Izan ere, irakurleen portzentajerik handiena (%42,3) 15 eta 24 urte bitarteko gazteek dute. Txikiena (%22,6), aldiz, 55 eta 64 urte bitarteko elebidunek. Tarteko adin-taldeetan hirutik batek baino gehiagok irakurri du euskarazko liburuen bat.

Adina	Bai	Ez
>64	31,3	68,7
55-64	22,6	77,4
45-54	34,3	65,7
35-44	36,0	64,0
25-34	36,1	63,9
15-24	43,2	56,8

Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera. EAE, 2007 - 2008 (%)



Oinarria: Azken hiruhilekoan asialdiari, lanari edo ikasketei lotutako liburuen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztate elebidunen %66,9

Iturria: Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008. Kultura Saila


Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta adin-taldearen arabera. EAE 2007-2008

2007-2008ko datuen arabera, elebidunen %78,7k musika entzuteko ohitura du. Horietako gehienek (%79k) euskarazko musika entzuten dute.

Euskal musika entzuteko ohitura antzekoa da adin-talde guztietan, eta ez da alde berezirik nabari adin-talde batetik bestera. Hala ere, esan daiteke 45 eta 64 urte bitartekoak batez bestekoaren gaineratik daudela, eta euskal musika entzuteko ohitura gutxien dutenak gazteenak (15-24) direla (%75,6).

Adina	Entzuten dute	Ez dute entzuten
>64	76,5	23,5
55-64	79,9	20,1
45-54	83,6	16,4
35-44	76,7	23,3
25-34	82,8	17,2
15-24	75,6	24,4

Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta adin-taldearen arabera. EAE, 2007 - 2008 (%)



Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %78,7

Iturria: Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008. Kultura Saila

Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta adin-taldearen arabera. EAE, 2007-2008


2007-2008ko datuen arabera, elebidunen %24,5 joan da antzerki-emanaldiren batera azken urtebetean. Horietatik ia erdia (%46,8) euskarazko antzerki-ikuskizunen batean izan da.

Euskarazko antzerki-emanaldietara gehien joaten direnak helduak dira (35-54 urte). Izan ere, adin-tarte horretan antzerki-emanaldietara joateko ohitura duten elebidunen erdiak baino gehiago joan dira euskarazko ikuskizunen batera.

Gazteen eta zaharren artean, gehiago dira euskarazko antzerki-emanaldiren batera joan ez direnak joan direnak baino.

Adina	Joan da	Ez da joan	ED/EE
>64	37,9	57,1	5,0
55-64	36,9	60,6	2,5
45-54	51,1	47,8	1,1
35-44	58,9	37,9	3,2
25-34	43,2	54,6	2,2
15-24	45,5	52,5	2,0

Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta adin-taldearen arabera. EAE, 2007 - 2008 (%)



Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,5

Iturria: Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008. Kultura Saila


Bertsolaritza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsona elebidunak, adin-taldearen arabera. EAE, 2007-2008

2007-2008ko datuen arabera, elebidunen %18,1 zuzeneko bertso-saio batean izan da azken urtean eta %8,7 azken hiruhilekoan. Azken horiek gutxienez 2 aldiz joan dira bertso-ikuskizun batera.

Adinari dagokionez, 15 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen artean eta 55 eta 64 urte bitarteko helduen artean dago bertso-saioetara joaten direnen proportziorik handiena (%12,9 eta %11,1 hurrenez hurren). Gainerako adin-taldeetan %9 baino gutxiago dira azken hiruhilekoan bertso-saioren batera joan diren elebidunak.

Bertsozalearen profila eginez gero, Gipuzkoako herri txiki bateko gizonezko gaztea aterako litzateke.

Bertsolaritza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsona elebidunak, adin-taldearen arabera. EAE, 2007 - 2008 (%)



Joateko ohitura dutenak: azken hiruhilekoan bertsolaritza- emanaldietara joan diren pertsona elebidunak)

Iturria: Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008. Kultura Saila


# Hizkuntza-politikarako erabilitako diru-baliabideak

Egin den azterketa-lanak, bestalde, honako beste ondorio hau ere begibistan jarri du: euskararen erabilera normalizatzeko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak lehenetsitako helburuak gauzatzeko ezinbestekoa dela, datozen urteotan, egungo baliabideak, urtez urte, haztea. Izan ere, egungo giza eta diru-baliabideei ahalik eta etekinik onena ateratzeko erakundeen arteko koordinazioa hobetzeak ez baitu ekarriko berekin datozen urteotarako lehenetsi diren erronka berri nagusiei aurre egiteko behar besteko oinarrizko baliabiderik. (EBPN, 62)


## ADIERAZLEAK

- Euskararen aurrekontu likidatuaren pisu erlatiboa, erakundearen aurrekontu osoarekiko
- Euskara sustatzeko gastua biztanle bakoitzeko (€ biztanleko)
- Euskara aurrekontu likidatua erakunde-motaren arabera (milioi €)
- Euskara sustatzeko aurrekontua, hizkuntza-normalkuntzako eremuaren arabera
- Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako egitasmoak

Euskararen aurrekontu likidatuaren pisu erlatiboa, erakundearen aurrekontu osoarekiko. EAE, 2002-2008 (%)



Euskara aurrekontu likidatua erakunde-motaren arabera. EAE, 2002-2008, (milioi €)



Euskararen aurrekontu likidatuaren pisu erlatiboa, erakundearen aurrekontu osoarekiko. EAE, 2002-2008

Erlatiboki 2008ko euskara aurrekontuak aurrekontu osoekiko duen pisua (%1,24), 2006. urtean zuena baino zertxobait altuagoa izan arren, 2002 eta 2004. urteetan izan zuena baino baxuagoa da (%1,35 eta %1,44 hurrenez hurren)

Edonola ere, kopuru absolutuetan EAE mailako euskara aurrekontuek beti egin dute gora 2002tik 2008ra eta aurreko jaitsiera hori ez da euskararako baliabide gutxiago erabili delako, proportzionalki erakundearen aurrekontu osoek igoera handiagoa izan dutelako baizik.


Euskara aurrekontu likidatua erakunde-motaren arabera. EAE, 2002-2008

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak orotara, 187,5 milioi euro erabili ditu 2008. urtean euskararen normalizaziorako. Kopuru horren ia %70 Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontuari dagokio (130,4 milioi), %20, 5.000 biztanlez gorako udalen aurrekontuari (hiriburuak barne) (37,1 milioi), eta %10,6 Foru Aldundien euskara aurrekontuari (20 milioi).


2008an euskarari proportzionalki baliabide gehien eskaintzen diotenak, hiriburuak ez diren 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak dira aurrekontu osoaren %2,06 euskara normalizatu eta sustatzeko ekintzetara bideratu zuten. Eusko Jaurlaritza dator ondoren, bere aurrekontu osoaren %1,40 eskainiz, eta nabarmen beherago hiriburuak eta foru aldundiak (%0,69 eta %0,66 hurrenez hurren).



Euskara sustatzeko gastua biztanle bakoitzeko. EAE, 2002-2008 (€ biztanleko)



Euskara sustatzeko aurrekontua, hizkuntza-normalkuntzako eremuaren arabera. EAE, 2008 (%)



Iturria: HPS

Euskara sustatzeko gastua biztanle bakoitzeko. EAE, 2002-2008 (€ biztanleko)

2008an, EAEko administrazio publikoak orotara 7.127 euro inguru gastatu ditu biztanleko; eta horietatik, euskara sustatzeko eta normalizatzeko 88 euro izan dira. Urteak urtera altuagoa izan da bai euskara aurrekontua biztanleko, baita aurrekontu publiko osoa biztanleko ere. Izan ere, 2002an 61,7 euro izan ziren. Hala ere, aurrekontu osoak biztanleko izan duen igoera handiagoa da euskara aurrekontuarena baino.

Joera bertsua ikus daiteke erakunde eta erakunde-mota desberdinetan, Arabako udalen salbuespenarekin. Horietan, bai euskara aurrekontua, baita aurrekontu publiko osoaren ratioa biztanleko jaitsi egin baita 2006tik 2008ra bitartean.

Euskara sustatzeko aurrekontua, hizkuntza-normalkuntzako eremuaren arabera. EAE, 2008

2008an Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak orotara euskara sustatzeko erabilitako 187,5 milioi euroetatik, 49,5 milioi euskalduntze-alfabetatzera eta 42,9 milioi irakaskuntzara bideratutakoak izan dira; laurden bat eskas (43,2 milioi euro), egitasmo edota gastu orokorrak finantzatzera (euskara atalen zuzendaritza, koordinazio eta funtzionamendu gastuak), eta azken laurdena, hizkuntzaren elikadura eta erabilera helburu duten arloetako ekimenak finantzatzera: 25,9 milioi elikadurara, eta 25,1 milioi erabilera.

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako egitasmoak, 2000-2010



2010ean, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako egitasmoak 515 izan dira. Horietatik %39,2 teknologia berriak (IKT) garatzekoak izan ziren, %23,9 euskarazko hedabideetara bideratu dira, %19,2 aisialdira eta kirolera eta %10,1 kulturgintzako egitasmoetara.

Hedabideen multzoan, egitasmoen erdia baino gehiago (%56,1) prentsa idatzizkoak dira, baina aipagarria da Internet bidezko prentsa hartzen ari den indarra. Izan ere, egitasmo guztien ia herena (%31,7) dira.

Azken hamar urteetako bilakaerari begiratu gero, arlo guztietan egin du gora Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako egitasmo-kopuruak. Hala ere, azpimarratzekoa da teknologia berriko egitasmoen hazkundea (2000. urtean 5 egitasmo baino ez ziren lagundu). Aldi berean, aisialdiari eta kirolari lotutako egitasmoen kopurua bikoiztu egin da.

Hedabideetan, prentsa idatzizko egitasmoek gora egin dute, baina, esan bezala, bereziki Internet bidezkoak hazi dira.

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako egitasmoak, 2000-2010



Iturria: HPS

